




URTEKARIA DEBAGOIENA 2014



Zorionak eta urte berri on!



LASA
jatetxea

Ozaeta jauregia - BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es
reservas@restaurantelasa.es



Ez zaitez galdu.

EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



BERGARA
AUTOA GARAJEAN UZTEAGATIK, %75EKO BONIFIKAZIOA
Kotxea Garajeen programa sortu zuen Bergarako Udalak, kaleetan auto gutxiago egoteko aparkatuta. Parte hartzen zuten garajeen jabeek %75eko bonifikazioa izango zuten garajearen kontribuzioan; horrela esan zuen Udalak hilaren 22an.

DEBAGOIENA
EKARPEN SUBORDINATUEN AUZIAN, EROSKI ABSOLBITUTA
Ekarpen finantzario subordinatuen kontura Adicaek ipinitako talde-salaketan, Eroski absolutu egin zuen epaileak hilaren 27an. Epaian zioenez, "publizitatearengatik Eroski kondentzako kausarik ez" zegoen.



ARRASATE
DAVID ARTZAMENDI
ORGANO-JOLEA ETA KOMPOSITOREA
Urtarrilaren 25ean hil zen David Artzamendi, 99 urte zituela, Arrasaten. San Juan Bataiatzailea parrokia organo-jolea izan zen gaztetandik.

ARRASATE
KEPA BEREZIARTUA
POLITIKARIA ETA EAE-KO MILITANTEA
Eusko Abertzale Ekintzako (EAE-ANV) militante historiko Kepa Bereziartua hil egin zen urtarrilaren 6an Txagorritxuko ospitalean, 64 urte zituela.

ARRASATE
TXEMA GISASOLA
MONDRAGONEN PRESIDENTEA
Mondragon Korporazioko presidentea kargutik dimittitu egin zuen Txema Gisasolak hilaren 17an, "arrazoi pertsonalak" argudiatuta.



ARRASATE
700 bazkiderekin bihurtu zen elkarte Ordaindu
Fagor Etxeresnetako hainbat bazkidek osatutako Ordaindu elkarteak izaera ofiziala hartu zuen hilaren 20an, sorrera-batzarrean. 500 lagun inguru izan ziren batzar hartan. Txema Gisasolak dimittitu osteko egoera aztertu zuten. Mikel Olabe arduraduna pozik azaldu zen: haren hitzetan, euren ekarpenek "izaera preferentea izan zezaten" nahi zuten. Elkarte 700 bazkide ingururekin sortu zen, eta 30 milioi eurotik gora ordezkatzen zituzten.



ANTZUOLA
Goizperreko munduko ordezkariek bisita
Goizperren esportazioetako komertzial taldearen urteko konbentzioarako Antzuolan batu ziren hilaren 16an mundu osoan dituen ordezkariek, enpresak aurkeztu dituen produktu berriak eta munduan garatzen dabilen proiektuak ezagutzera. Frantzia, Singapur, El Salvador, Jordania, Kenya, Mali eta Herbehereetako ordezkariek izan ziren. Ihintzadura dibisioko ordezkariek ziren eta nork bere tokiko merkatuaren berri eman zion Goizperri.



BERGARA
Gonzalez Bastidaren omeneko kontzertua
Miguel Gonzalez Bastidaren omeneko kontzertua eskaini zuen hilaren 17an Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, eta Udal Pilotalekua goraino bete zen musikazalek. Indarrak eta zirrarak, biek egin zuten bat kontzertuan. EOSek Bergara bisitatzeko zuten bosgarren aldian, eta 800 zalek bete zuten pilotalekua. Omenaren seme Alfredo Gonzalez Chirilaquek zuzendu zuen orkestra une batzuetan; adibidez, Gonzalez Bastidaren Lorea jo zutenean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitalpena
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak
EOS Beasabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Argitalpena
Goiena Argitaletxea, 20550
E-05 Beasabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com

Legia
Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2794-365X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale.

DEBAGOIENA 2014 URTERRIA
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madena
Erredaktorea Aitor Izagirre, Aneko Azkarate, Mainer Aizola, Mireia Beldarrain, Inma Beldarrain, Jon Bereziartua, Jokin Bereziartua, Mireia Bikalia, Miriam Biteri, Oihana Elortza, Arantza Ezkibel, Inma Gallego, Iratxe Galita, Ander Larraga, Ubane Madena, Txomin Madina, Maialen Torres, Anais Txirruarreta, Xabi Urteola, Larantz Zuberu.

Testuen zuzendaria Sergio Azkarate
Maketaria Iratxe Iturbe, Inma Soriano
Argazkiak (sinatzen ez dutenak) Erredakzioa, Aneko Azkarate, Aneko Azkarate, Eusko Herriko Argazki Argitaletxea, Joseba Arantza, Julia Gallego, Jakiunde, Inma Soriano, Nerea Santos.
Publizitatea Mireia Larraga, Amaia Mundurano, Zortza Martin, Inma Elortza.

GOIENAK ez du bere gain hartzen argitalpen honetako kolaboratzaileek adierazitako initzen erantzukizunik.
HONAKO URTEKARI HONEN EDIZIOA ABENDUAREN 18AN ITXI DU GOIENAK



Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordea



ARRASATE
ENEO CARRASCAL ATLETAK,
EUSKADIKO URREZKO DOMINA

Hilaren 3an eta 4an jokaturako Euskadiko atletismo proba konbinatuaren txapelketan urrezko domina irabazi zuen Eneko Carrascal (14 urte), kadete mailan. 3.243 puntu lortu zituen, Espainian lehiatzeko behar diren 3.300 puntuetatik oso gertu.

ARRASATE
MARIASUN PAGOAGA, 'LASA ETA ZABALA' FILMEKO AKTORE

Mariasun Pagoagak Jose Antonio Lasaren amaren rola egin zuen Pablo Malok zuzendutako *Lasa eta Zabala* filmean. Hilaren 27an hasi zuten filmaketa, Baionan, eta sei eguneko lana egokitu zitzaion Pagoagari; pozik zegoen lan berri horrekin.

6.000

IRAKURLE

GOIENA paperak 6.000 irakurle irabazi ditu 2012a ezker, CIEsen arabera. Aurtengo urtarilean, 32.000 irakurle zituen astekariak.

ARRASATE
Aita Menniko Lege
Psikiatria Unitatea ▼▲

Urtarrilean hamar paziente zituen Aita Menniko Lege Psikiatria Unitateak. Bertako pazienteak delituren bat egin duten gaixoak dira eta epaileak agintzen du euren egonaldiaz, bisitez... 880 metro koadro baino gehiagoko instalazioak dira, ospitalearen beste atalak baino segurtasun neurri handiagoekin. Unitate berritzailea zen Hego Euskal Herrian eta Espainian. Hura irerki arte, pertsona horiek kartzelara bidaltzen zituzten.



ELGETA
Goibekok Espaloia utziko zuela jakinarazi zuen ▲

Ekainean amaitzen zen Elgetako Udalak Goibeko euskara elkarteari Espaloia kafe antzokia kudeatzeko egindako esleipena, eta lantaldeak erretiratu egingo zela jakinarazi zuten bazkideei urtarrilaren 15ean. Hamar urteren ondoren, nekatuta zeudela esan zuten. Balorazio positiboa egin zuten: "Demostratu da gurea moduko herri baten funtzionatu duela eskualde proiektu batek".

ARETXABAETA
Kimioterapiarako robota, Aretxabaletatik mundura ▲

Kiro Robotics enpresa aretxabaletarrak, Mondragon Korporaziokoak, Kiro Oncology robota sortu zuen. Kimioterapiako dosiak oso modu zehatzean prestatzeko egin zuten. Bi urte eman zituzten egiteko eta beste urte eta erdi probetan. Sei milioi euro inguruko inbertsioa eskatu zuten proiektuak. Urtarrilean aurkeztu zuten jendaurrean eta Clinic eta Vall d'Hebron ospitaleetan probatzen zeukatela esan zuten.



ELGETA
Mari Angeles Elkoro idazkariak erretiroa hartu zuen ▲

Elgetako Udaleko idazkari lanpostuan 37 urtez jardun ostean, martxoaren 1ean hartu zuen erretiroa Mari Angeles Elkoro elgetarrak, eta otsailaren 25ekoa haren azken osoko bilkura izan zen. Urteotan herriari emandakoa eskertu zion Oxel Erostarbe alkateak; Elkoro eskerrak eman zituen "jasotako laguntzagatik" eta berarekin izandako "pazientziagatik". Goiko irudian, udalbatza Elkororekin.

DEBAGOIENA
BAILARAK INTERNET SARE
AUTONOMOA IZATEKO LANEAN
Ziberarako kideek *Guffi.net* egitasmoa lantzen ziharduten, Debagoienak Internet sare autonomoagoa izan dezan. Mankomunitateari herrigintzatik abiatuta eta operadore handiengatik independente den proiektua aurkezteko asmoa zuten.

ARRASATE
ARTXIBOA MARKULETERA
EROATEA ERABAKI ZUEN UDALAK
Espazio falta konpondu eta dokumentuak gordetzeko baldintza egokiak bermatzeko, udal artxiboa lekuz aldatzea erabaki zuen Arrasateko Udalak. Markuleteko 18. pabiloia egokitzeko lanek 276.500 euroko aurrekontua zuten.



OÑATI
INAZIO
ARREGI
BALTISTAN
FUNDAZIOKO KIDEA
"600.000 eurotik gora inbertituko ditugu eskoletan eta beste azpiegiturretan"



ANTZUOLA
Ekaitz Kortazar eta Leire Fernandez, azkarrenak ◀

Otsailaren 16an Antzuolan egin dako 8 Miliak mendi lasterketan Ekaitz Kortazar durangarra eta Leire Fernandez errenteriarra izan ziren gizon-emakume azkarrenak. Arrakastatsua izan zen bigarren edizio hura. Denera, 241 korrikalari atera ziren irteera puntutik eta bostek ez beste gutxiak amaitu zuten proba. Debagoieneko lehena helmugaratzen Iñigo Altzola arrasatearra izan zen; sailkapen nagusian seigarren postua lortu zuen.

BERGARA
Azoka biziberritzeko proiektua aurkeztu zuten ▲

Otsailaren 18an aurkeztu zuten Bergarako Udalak eta Bagarak *Azoka Bergaraten* egitasmoa. Azoka biziberritzea zen asmoa, herritarren eta eragileen parte-hartzeaz. Hiru lido nagusi zituen: Batetik, azoka biziberritzeko, erai-kinaren erabilera azterketara egitea; bestetik, hausnarketa egitea tokiko ekonomia eta elikadurara sustatzeko. Hirugarrenik, 0-12 urte arteko haurrendako ezarri gura zen aisialdi-gunearen gaineko parte-hartze prozesua.

ALDEDI
Urte berri on!
Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

EGUZKIGRAF
inprimategia
Aretxabaletako Industrialdea F-04
943 791 844
info@eguzkigraf.com
2015a OPAROTASUNEZ BETETA IZATEA OPA DIZUGU. ZURE KONFIANTZA IZATEN SEGITUKO DUGUN ESPERANTZAREKIN ETA GURE ZERBITZUAK ESKEINTZEN SEGITUKO DUGULAKOAN.
liburuxkak
jai egitaruak
pegatinak
kartelak
tarjetak
etiketak
30 urte baino gehiago zure zerbitzura

MARTIN frutategia
Frutan eta txarkuterian
espezialista
Urte berri on!
San Juan Kalea 12 ESKORIATZA Tel: 652 77 53 58



BERGARA
GAZTEENDAKO SEXU ETA GENERO
AHOLKULARITZA MARTXAN

Gazteek euren sexualitatearen inguruan dituzten zalantzak eta egoerak kudeatu eta argitzeko espazioa eskaini gura zuen Bergarako Udalak, eta horretarako, *Biluzik mundura* zerbitzua martxan jarri zuten Ongizate Saitetik.

75
URTE

Horrenbeste urtez lanean jardun eta gero, otsailaren 28an itxi egin zuten Bergarako Zubietako kaleko Arantxa mertzeria. Erretiroa hartu zuten Arantxa Askasibar jabeak.

106
MILIOI

Debagoienak izan zuen Euskadin I+G+I-ko gastu handienetakoa 2012an; hiriburuen ostean. Eustaten arabera, gehien inbertitu zuen laugarren eskualdea izan zen.

ARAMAIO

'Bazan behin Aramaixon'
liburuxka aurkeztu zuten

2000. urtean Aramaioko ahozko literatura jasotzeko beka atera zuen Udalak, eta otsailaren 21ean, *Bazan behin Aramaixon* liburuxka aurkeztu zuten. Urteotan egindako bilketari esker jasotako hamabost pasarte, ipuin eta kondairak osatzen dute lana; bereziki 0 eta 4 urte bitarteko umeendako aproposak direnak. Goiko irudian, ahozko ondarea biltzen ibili ziren Dibina Arriolabengoa eta Arantza Ozaeta aurkezpenean, liburuxka esku artean zutela.

ESKORIATZA

Hondakinei buruzko herri
galdeketa egin zuten

Eskoriatza Garbiak deituta, hondakinen bilketa sistemari buruzko galdeketa egin zuten otsailaren 23an. Proba pilotu moduan sistema mistoa erabili zuten San pedroko eta Intxaurtxuetako auzotarrek eta Gaztanduiako 27-29 atarietakoek izan zuten botoa emateko aukera. Plataformak osatutako 1.056 pertsonako zerrendatik 419 lagunek hartu zuten parte; %97,9k bosgarren edukiontzia alde egin zuten. Eskumako irudian, galdeketa iragartzeko agerraldia.



OÑATI

'Ikastetxeak Kantari'
ekimeneko kontzertua

Otsailaren 22an, *Ikastetxeak kantari* ekimeneko neska-mutikoen kontzertua eskaini zuten Oñatin. Lehen Hezkuntzako 1. eta 6. maila arteko ehun ume inguru igo ziren agertoki gainera. Hasteko, ikastetxeka abestu zuten: Txan-txiku Ikastolako kantu tailerrekoak izan ziren lehenak, eta jarraian, Urgan Eskolako abesbatzaren txanda izan zen. Elkar hizikoen emanaldiaren ostean, ikasle guztiek elkarrekin abestuz bukatu zuten kontzertua.



MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434 Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Jai Zoriontsuak!

ILAIA

Ile apaindegia • Estetika

GABON JAI ZORIONTSUAK ANTZUOLAR GUZTIOI!

Kalegoi 20 behea ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 33



ARETXABALETAKURTZEBARRI HERRI
ESKOLAN OBRAK HASI ZITUZTEN


Leku arazoa konpontzeko, otsaila amaieran hasi zituzten Aretxabaletako Kurtzebarri eskola handitzeko lanen lehen fasearekin. Eraikina handituko den lurzorutik pasatzen den gas hodia desbideratu behar zen lehenengo fase horretan.

ESKORIATZA
ESKOMOTOR TALDEAN 15 LAGUN
INGURU DABILTZA

Autoek elkartu zituzten Eskomotor taldeko kideak; hain zuten, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateko 15 bat lagun osatzen dute taldea. Horietatik, zazpi txapelketetan dabilta; eta besteak beste, uztaileko Arlabango igoera antolatuta zuten.

ELGETA
BOLUNTARIOEKIN EGINDAKO
IPUIN SAIOAK MARTXAN

Elgetako Udal Liburutegiak antolatuta, *Ipuinen ordua* ekimena jarri zuten martxan otsailaren 7an. Sei bat boluntarioen eskutik umeendako ipuin kontalari saioak egin zituzten apirilera arte, hamabostean behin, liburutegian.



BERGARA
JON MUXIKA
IGERILARIA

Euskal Herriko igeriketa txapelketa egin zuten otsaila erdialdean Iruñean, eta kategoria absolutuan, Jon Muxika bergararrak aparteko nagusitasuna erakutsi zuten.



ARETXABALETAKURTZEBARRI
URKO ARISTI
TOKIKOMEN PRESIDENTEA

Otsailaren 22an, Toki Komunikabideen Bateragunearien batzar nagusian presidente berria izendatu zuten: Urko Aristik bete zuten Mikel Irizarren lekua.



OÑATI

Cegasa aurre-konkurtsuan sartu zen

Finantzaketa arazoengatik Cegasa Taldeak konkurtsu legearen aurrekora joko zuela iragarri zuten. "Aktibitatea berriz egituratzeko" modu gisa aurkeztu zuten zuzendaritzak erabakia. Sei hilabeteko ERTEa proposatu zuten; apirilean ezagutarazi zituen horren gaineko baldintzak. Goiko irudian, apirilaren 2an langileek Oñatin egindako protesta; lantegia konkurtsuan sartu zenetik hirugarrena.



BERGARA

Hondakinak batzeko sistema mistoa abiatu zuten

Bergararrek otsailaren 4an estreinatu zuten hondakinak batzeko sistema misto berria. Martitzen hartan merkatariak izan ziren sistema probatzen lehenak, eta gauean, gainerako herritarren txanda izan zen. Ingurumen zinegotzi Leire Iruñek lehen egunetako "balarazio positiboa" egin zuten. Sistema, baina, ez zen guztien gustukoa, eta, protesta moduan, hondakinak poltsetan atera zituzten zenbait herritarrek.

Lenizek jai zoriontsuak
opa dizkizue!



Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Aingeruarda Pasealekua, 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 40 10 • Posta-e: rleniz@euskalnet.net

ARRASATE KANPANDORREKO KANPAIETAKO BAT JAUSI ZEN

Arrasateko kanpandorreko kanpaia jausi zen 18:45 aldera. Bikote baten ondoan jausi zen zati bat, eta susto ederra hartu zuten. Palentziako enpresa bat arduratzen da mantentze-lanez, baina urgentzia bat zela-eta apirillean konpondu zuten.

ARRASATE BI DISKOREN OSTEAN AGURTU DA BITTER HONEY TALDEA

Bitter Honey taldeak agur-kontzertua eman zuen. Gaztetxean, bidelagun izandako talde eta musikarien laguntza jaso zuen. Sei urteko ibilbidearekin, bi diskorekin eta kontzertu ugariarekin, agur esan zieten agertokiei.

ARETXABAETA KEPA ERRASTIREN ESKETXA LABURBIRAN

Aurtengo Laburbiran, Kepa Errastik *Euskaldun berriaren esketxa* lana aurkeztu zuen. Film laburren zirkuitu hori egiten den hamaigarren urtea izan da, eta aurtun zazpi labur aurkeztu dira. Laburbirak, guztira, 30 emanaldi izan zituen.



ESKORIATZA Clara Campoamor-en eta Udalaren arteko akordioa ◀

Elkartek eta Eskoriatzako Udalak lortutako akordioari esker, bi zerbitzu mota berri eskaintzen hasi zen Clara Campoamor elkar-tea herrian: batetik, indarkeria matxistaren edo sexu erasoaren biktimak izandako emakumeei arreta eskaintzeko udal jarduerak; eta, bestetik, koordinazio protokoloa egiteari ere ekin zion. Horrez gain, Eskoriatzan emakumeen eta seme-alaben eskubideei buruzko aholkularitza sozio-juridikoa ere eskaintzen du.



ARETXABAETA Fun Dantz! kaleko erritmoen jaialdia ▶

Fun Dantz! kultura urbanoen jaialdiak Aretxabaetako Ibarra kiroledegia gogotik mugitu zuen. Zapatu arratsaldean zehar, berdintasuna bultzatzeko, hip-hoparen kulturako hainbat diziplinak kiroledegia hartu zuten, eta ohikoa ez den emanaldi ikusgarria ekarri zuten Aretxabaletara. Ohol-tzatik pasatu ziren 16 taldeetatik hiruk lortu zuten Bilboko Break On Stage jaialdirako txartela; tartean, arratsaldeko ED Steps bikote irabazleak.

ARRASATE Gaztetxea autogestioan oinarrituz, aurrera ▶

Azkenaldian garai zailak bizi dituen arren, bere eguneroko lanean aurrera segitzen du Arrasateko gaztetxeak. Arazo ekonomiko horien iturria eraikinean dagoela uste dute Asanbladako lagunek. Elektrizitate eta mantentze gastuak oso handiak dira. Egoera zail horri buelta emateko lan handia egin zuten, serigrafia tailer bat, kontzertuak... antolatuz zituzten. Argi dago AGAKOko kideak ez direla geldirik geratzen diren horietakoak.



ESKORIATZA HERRIKO MERKATARIAK KALERA IRTEN ZIREN

Axtroki merkatari elkartekoak kalera irten ziren Eskoriatzako merkataritza sustatzeko. Goizeko hamaiketatik hasita, askotariko ekintzak egin zituzten plazan. Elkarteko kide diren 24 komertzioek produktuak eta zerbitzuak atera zituzten kalera.

OÑATI IRAKURTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTENENTZAKO IKASTAROA

Oñatin, *Irakurketa erraza* egitasmoa jarri zuten martxan Udaltaldean, Euskal Herriari aitindaria den egitasmoa. Irakurtzeko zailtasunak dituztenentzako izan zen; adibidez, etorkinendako edo urritasunak dituztenentzako.



ARRASATE
MAÑEN
RUIZ DE AZUA
PERTIKA-JAUZILARIA

Munduko junior txapelketara joateko txartela eskuratu zuen Zaragozan. Egun batzuk lehenago, Espainiako txapelketan urrezko domina eskuratu zuen.



ARRASATE
DEBORA
NUNES
MTS-KO KIDEA

"Elikadura ereduak munduko herri eta kultura askoren desagertzea ekarri du"



ARRASATE
LUIS
REY
CROSS COUNTRY
TXAPELDUNA

Cartayan, Cross Country Senior B 4T kategorian Espainiako txapela lortu zuen. Z Racing Team barruan aritu zen lanean, Sherco 300 SEF-R 2014 motorrearekin.

ESKORIATZA Setalde, Espainiako banatzaile onenen artean ▶

Eskoriatzako Setalde enpresa Hego Euskal Herriko eta Espainiako 16. enpresa bihurtu zen Schneider etxearren Expert Partner edo lankide aditu kategorian lortzen. Elektrizitate-material enpresa batek lor dezakeen kategorian goren. Bezeroei ematen dieten aholkularitzarekiko konpromisoak eragin zuen erabakia. 1982an sortutako enpresa da Setalde. Eskoriatzaz gain, Lasarte-Orian, Donostian eta Azkoitian ditu egoitzak.



OÑATI Rajoy gorritzea lortu zuten bi oñatiarrak ◀▶


Martxoaren 8an Euskadiko PPK biltzarra egin zuen Kursaalaren. Lau feministak biltzarrera sartu, eta, eskuak zein aurpegiak gorritu margotuta, Espainiako presidentearen hitzaldia etetea lortu zuten; tartean, Jone Arrazola eta Rebe-ka Maestro oñatiarrak ziren. "Aborto ilegal, violencia estatal" eta "Gure gorputza, gure erabakia" oihuekin. Une hura Euskal Herriko eta Espainiako komunikabide eta sare sozialetan bizkor zabaldu zen.




BERGARA Iheslarientzat babes bila, lehen saioa ▶

Jende gehienarentzat beltzez marraztutako siluetak zirenek jendaurrean agertu eta aurpegia erakusteko erabakia hartu ondoren ekitaldi ugari egin dituzte. Bergarako Zabalotegi aretoko saioan Xabier Zubizarretak eta Aitziber Plazaolak euren bizipenak kontatu zituzten, iheslariekiko elkartasuna hedatu eta egituratzeko. Zentzu horretan, euren iparraldean egindako denboran jasotako babes jarri zuten adibide gisa.





MIBA
ERKOP



GIZATASUNA
LANEAN


MONDRAGON

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

Laborantza tresnak
Ongarriak - Haziak

Zorionak eta
Urte berri on!


Mitarte 7, behea. ARETXABAETA • Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 72 56



TXANTXIKU
ELEKTRIZITATEA

Julian Uribeetxeberria Olalde
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zorionak eta
Urte berri on!



Kale barria 20 • Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:


BALORAZIO PACKA:
Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera balorazio-rako portzentaje bereziak ere.

BABES PACKA:
Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA
Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezeko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA
Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharririk izaten ez bada.

GAINERA...
Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH
M^o del Mar Urrutia Negueruola

Urte Berri On!



Montxon kalea 5 behea / 20560 / OÑATI
Tel.: 943 78 30 09 / 620 77 66 20
Faxa: 943 78 31 36



LIZKER

Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

- Aholkularitza fiskala
- Lan aholkularitza
- Kontabilitatea
- Zerga aitortpena

Zorionak eta Urte berri on!

Erremeritari plaza 2-3 behea • OÑATI



OÑATI
Zubillagako suhiltzaileek kamioi berria dute ▶▲

28 urte zituen kamioia zaharrak, eta martxoan jaso zuten Zubillagan ibilgailu berria. Kamioi berriak abantaila ugari ditu; horien artean dago ura presio handiagoarekin botatzeko aukera.

Kamioia ez ezik, Asiako liztorraren habiak hobeto kendu ahal izateko, jantzi egokiagoak ere jaso zituzten.

Bailarako suhiltzaileak, gainera, Bidasoako suhiltzaileen atzetik, esku-hartze gehien egin zituztenak izan ziren.



OÑATI
OÑATI BIZIRIK EKIMENAREN AURKEZPEN MUSIKATUA

Oñati Bizirik aurkezteko kontzertua egin zuten Antixena gaztetxean. Autoekoiztutako eta autofinantzatutako egitasmoa izan zen, eta, hain zuzen ere, bertaratu zirenek aukera paregabea izan zuten herriko musika taldeak ezagutzeko.

857
BIRKOKATZE

51,3
MILIOI

Azken lau hilabeteetan, Mondragon taldeko kooperatibetan Fagor Etxetresnetako ia 857 langile birkokatu zituzten.

Euskadiko hizkuntza-industriaren fakturazioak %0,5eko igoera izan zuten aurreko urtearekin alderatuta eta 2013an baino %1,26 langile gehiago ditu.



ARETXABAETA
'Zela Trovke'-rentzak Huhezinemaren sari nagusia ▶▲

Mondragon Unibertsitateko ikasleek antolatutako jaialdiaren erabateko irabazlea Asier Altunaren *Zela Trovke* film laburra izan zen. Jaialdiko sari nagusia lortzeaz gain, euskarazko film onenaren Goiena saria ere eskuratu zuen. Epaimahaiaren sari berezia, berriz, Lander Camareroen *A Political Story*-rendako izan zen. Ikasleek egindako film onena *Anonymous* laburra izan zen.



ESKORIATZA
BAILARAKO ETA SORALUZKO MUSIKA ESKOLEN SAIOA

Bergara, Aretxabaeta, Arrasate, Eskoriatza eta Soralezko musika eskoletako kideek emanaldia egin zuten Eskoriatzako kiroldegian. Ohiko doinuak eta bereziagoak jo zituzten. Instrumentu bereziak ere erabili zituzten musika egiteko; adibidez, idazmakina.

ARRASATE
FAGOR ETXETRESNEN FRANTZIAKO FILIALA, CEVITAL-I

Fagor Etxetresnen likidazio plana aurkeztu zuten administratzaile konkurtsalek. Helburua zen jarduera industrial berriz martxan jartzea, ahalik eta lanpostu gehien kontserbatuta. Nanterreko epaitegiak erabaki zuten Cevitali ematea Frantziako filiala.

ANTZUOLA
GOIURI AZKARATEASKASUA, EAE-KO IKASLE ONENEN ARTEAN

Euskal Autonomia Erkidegoko batxilergoko hamabost ikasle onenen artean dago Goiuri Azkarateaskasua antzuolarra. Oso pozik azaldu zen. "Sorpres handia izan da niretzako, ez nuen inondik inora espero", adierazi zuen antzuolarrak.



BERGARA IÑAKI ASPIAZU
ARKITEKTOA

Arkitekto bergararra zendu zen. Ibilbide profesional oparokoa zen, hala nola udaletxeko birgaitze lanak egin zituen eta Gasteizko Justizia Jauregia diseinatu.



BERGARA ELENA LAKA
TOPAGUNEAKO PRESIDENTEA

Euskaltzaileen Topaguneak Elena Laka abokatu eibartarra aukeratu zuen presidente kargurako. Horrenbestez, Mikel Irizarren lekukoa hartu zuen Lakak.

ANTZUOLA
Jakiundeko akademikoak Elay enpresan izan ziren ▶

Higgs Bosoiaren aurkikuntzan Antzuolako Elayk egindako ekarpena balioan jartzeko ekitaldia egin zuten enpresan bertan. Hegoi Garitaona indiari, aurkikuntza hori ahalbidetu zuten esperimintuetan lan egin zuten euskal ikerlariak, hitzaldia egin zuen. Bertan eman zioten hasiera Jakiundeko kideek ere *Krisiak 2014* egitasmoari, eta lehen hitzaldia egun hartan bertan egin zuen Pedro Miguel Etxenikek Bergarako osoko bilkuren aretoan.



ARRASATE
Polmetasa lantegi zaharra botatzeko lanak ◀▶

Lehenik, amiantoa kendu zuten eraikin guztietatik, eta ondoren ekin zieten lantegi zaharra botatzeko lanei. Azken urteotan hainbat arazo izan ziren Polmetasako eraikinaren bueltan; besteak beste, istilu eta suteen gaineko kexak izan zituzten auzotarrek. Polmetasak 2008an utzi zion bere aktibitatea San Andres auzoan gauzatzeari eta San Andres Berri SL etxegintza enpresari saldu zion lursaila; hala ere, San Andres Berrik hondoa jo zuen.



ESKORIATZA
Hondakinak gaika sailkatzen hasi ziren ▲

Atez ateko bilketa sistema ezarri zen Eskoriatzan, eta egunaren arabera hondakin bat edo beste ateratzeari ekin zioten. Apirilaren 6an ekin zioten sistema berriari organikoaren bilketa erekin. "Ohitura aldatzea txikia da, arazo bati irtenbidea ematea da, eta erraza da. Anima zaitzete, ondo egitera goaz, eta horretarako laguntza izango da", adierazi zien Beñat Herce alkateak herritarrei. Eskoriatza Garbia sistemaren aurka azaldu zen.

Egin topa gurekin!

ARRASATE • BENGOA
EZKIÑA • ITZALA
MONTE • OKORETEGI
RUMBA • TXOKO II

Larrea
jatetxea

Eguneko menua
Asteburuko menua
Karta zerbitzua

Kalebarren 17 **ANTZUOLA** erreserbak: 943 78 70 68

Urte berri on!

TXOMIN GARAJEA

Mekanika orokorra

ad
Tailer profesionala

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON GUZTIO!

IAT/ITVrako prestaketa
Negurako gurpiletan preziorik onena gurean

Lizarraga auzoa. ANTZUOLA. Tel.: 943 78 70 77

OÑATI
ARANTZAZUKO ALTZORRETAKO
BAT BALIOAN JARTZEKO ZIKLOA


Arantzazuko Santutegiko liburuak balioan jartzeko zikloa. Hiru ekintza egin zituzten: 1945eko inkunabile baten zaharberritzea, Xabier Egañaren erakusketa eta liburu azoka Edizio Frantziskotarrak argitalpenez. argitalpenez.

OÑATI
GANBARA TXIKIREN 10.
URTEMUGAN, KALEAN KANTUAN

Herriko abesbatza guztiak kalera irten ziren abestera, Ganbara Txikiren 10. urteurrena aitzakia hartuta. Hala, herritar asko ibili ziren kalejiran abesbatzekin batera. Bestalde, zirkua osatu eta ikuskizuna egin zuten gaztetxoek gaztelekuan.

BERGARA ALDEA
ENPRESARE, BERGARA ALDEKO
ENPRESAK BERRINDARTZEKO

Bergara aldeko enpresak berrindartzeko sortu zen Enpresare taldea. Bertako presidentea da Kristina Elkoro, eta honako hau adierazi zuen: "Enpresare sortu dugu, Bergara, Antzuola eta Elgetako industria sektorea berraktibatzeko".



ANTZUOLA
Torresoroan harmailak jartzeko lanak ▶▶

Torresoroako aretoan harmaila teleskopikoak jartzeko lanak egiten ziharduten apirillean, 167 lagunendako tokiarekin. Udal Gobernuak aspaldidanik buruan zeukan proiektua zen, baina ordu arte ekonomikoki ezinezkoa izan zen. Hala, Ima Beristain alkatea pozik azaldu zen herritarren nahia eta beharra errealitate bilakatuko zelako.



ELGETA
Errekreazioa egin zuten
bigarrenez Intxortan ▶▶

Intxortako frontean izandako gertaerak ekarri zituzten gogora, bigarren urtez egin zuten errekreazioarekin. 1936ko urrian eta 1937ko apirillean miliziano eta gudariak tropa frankistak nola geratu zituzten antzestu zuten. 120 bat herritarrek hartu zuten parte. Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Elkarrekin elkarrekin antolatutako ekitaldia izan zen eta helburu nagusia izan zen memoria historikoa berreskuratzeko eta bizirik mantentzea.



ARRASATE
Uribetxeberría etxean
preso sartzeko agindua ▶

Ismael Moreno epaileak baldintzarik bako behin-behineko espetxeratzeko ezarri zion Josu Uribetxeberríari, eta zigor hori bere etxean betetzeko agindu. Arrasatearrak Bergarako epaitegian deklaratu behar izan zuten, bideo konferentzia. Asteburuan manifestazioa egin zuten Uribetxeberríaren senide eta lagunek bere egoera eta "mendeku gosea" salatzeko. Ekainaren 18an baldintzapean aske uzteko agindu zuen Auzitegi Nazionalak.



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA



Gabon zoriotsuak
eta Urte berri on
guztioi!

ileak

Gabon zoriotsuak izan!

san lorentzo 9 a behea

tel.: 943 72 60 46

OÑATI



980
BAZKIDE



"Debagoiena aitzindari izan zen baserria ondare moduan kontsideratzen"

Erkidek jakinarazi zuen Fagor Etxeresnetako eta Edesako 980 bazkide birkokatuta zituela maiatzerako Mondragon Korporazioak.

ARRASATE
GANADUA ERAMAN ZUTEN
KURTZETXIKIRA BAZKATZERA

Arrasateko zortzi baserrikako ganadua eraman zuten Kurtzetxiki tontorrera maiatzean sartzeko bat. Hamar hektareako lursailean 22 behi eta bost behor izan ziren uztaila bitartean. Hala, lortu zuten lehen sektoreari laguntzea eta Kurtzetxiki balioan jartzea.

OÑATI
CEGASAKOEN MURRIZKETA
ESPEDEIEN ONARTU ZUTEN

Jardunaldia murrizteko EREa onartu zuten Cegasa Taldeko langileek maiatzaren 7an. Sei hilabeterako zen eta taldearen zentzuetan eragin zuten, lan-kargaren arabera. Oñatiko langileei lan jardunaren laurdena murriztu zieten.

BERGARA
POL POL MUSHING TALDEA
SORTU ZUTEN HAMAR LAGUNEK

Txakur krosean jarduten duten hamar lagunek, horien artean Fernando Cobos eta Peru Azkarate bergararrek, mushing taldea sortu zuten. Konpromisoa hartu zuten azaroan Euskadiko txapelketako proba bat jokatzeko Gorlan, baita jokatu ere.

ARAMAIO
Beste bizikleta bat
'Mardo'-ren urteurrenean ▶

Joseba Larrinaga *Mardo* kirolari eta eragile aretxabaletarra hil zela urtea bete zen maiatzaren 7an, eta, hura gogoan, beste bizikleta bat jarri zuten (aurrekoa eroan egin zutelako) hil zen tokian, Aramaioko errepede bazterrean. Haren senideak, kuadrilla-koak, txirrindulari lagunak eta beste hainbat lagun elkartu ziren maiatzaren 10ean, istripua izandako lekuan bertan, eta omenaldi xumea egin zioten *Mardo*-ri.



OÑATI
'Gure Esku Dago' kanta
eta bideoa oñatiar erara ▶

Moldatu egin zuten Gure Esku Dago ekimenaren abestia Oñatiko hainbat musikaririk, eta maiatzaren 9an, San Migel Txikitán, erakutsi. Herriko abeslariak -eta abeslari ez diren batzuk ere bai- jarri zituzten kantuan; horien artean, Evaristo (La Pollako abeslari ohia), Iñigo Ugarte (Malenkoniako abeslaria) eta Pello Zabala (frantziskotarra). Maiatzaren 18an, ostera, giza katea egin zuten Urbian, erabakitzeo eskubidearen alde.



ARRASATE
MUK EBArako txartela lortu zuen lauko finala irabazita ▶

Norgehiagoka estuen ostein, Josu Larreategiren mutilek merezitako saria lortu zuten maiatzaren 25ean: EBArako txartela. Saskibaloiko lauko finala Arrasaten jokatu zuten, eta hori erabakigarria izan zen. Izan ere, Iturripe bete egin zen, eta azken bultzadak eman zizkioten etxeko taldeari bai Durangokoen aurka, baita azpeitiarren aurka ere.

- Plater konbinatuak
- Ogitarrekoak
- Eguneko menua
- Karta

Maulanda merenderoa

Urte berri on!


Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tél.: 943 71 47 20 eta 678 62 74 85

BERGARA
I. ERROTONDA EGUNA EGIN ZUTEN ELORREGIN

Toberako epaia betetzeko, I. Errotonda Eguna egin zuten maiatzaren 10ean Elorregin. Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko ordezkariak elkartu ziren eta zuhaixka bat landatu zuten Debagoieneko epizentroa dela adierazteko.

ARRASATE
TELEAGINTE BATERAGARRI ETA BERRITZAILA JMA-REN ESKUTIK

Arrasateko JMA Alejandro Altuna enpresak teleaginte bateragarri sorta bat garatu zuen, kopia-ahalmen handiagorekin. Irrati-frekuentziako teleaginteak ziren maiatzean aurkeztutakoak; bereziki, garajetako sarbideetarako eta barrerendako.



ARETXABAETA
MARI CARMEN LAZKANO
INDUSTRIALDEKO GERENTEA

Deba Bailarako Industrialdea SAKo gerente izendatu zuten. 1995a ezkerro Debabarreneko Industrialdean jardundakoa zen finantza teknikari lanetan.



ELGETA
ENRIKE ASTOLA
ARTZAINA

Eigetako Beizu baserriko semeak Azula baserrian egin zituen azken 33 urteak artzain. Maiatzean esan zuen agur esango ziola artzain bizitzari eta herrira jaitziko zela.

%1,5
LANPOSTU

Industriako lanpostuen %1,5 galduta zituela Debagoienak urtebetean jakinarazi zuen Eustat erakundeak. Hala, 2011n, 15.500 langile zeuden; eta 2012an, 15.260.



ARRASATE
Ospitalea, erditze naturalean aitzindaria

Debagoieneko Ospitaleak beste edozein ospitale publikok baino lehenago aldatu zuen erditzeak kudeatzeko modua, eta aitzindaria izan zen Erditze Plana eskaintzen. Plan horrek zehazten du emakumeak nola erditu gura duen. Ginekologiako buru Jose Ramon Serranok jakinarazi zuen gogoeta "sakon" baten ondoren etorri zela aldaketa hori. Bertako instalazio modernoak eta erditze naturalerako egokitutakoak erakutsi zituzten maiatzean.



ARRASATE
Herriko argazki zaharrenak aurkeztu zituzten AZEK

Arrasate Zientzia Elkarteak "altxorra" jaso zuen: 474 argazki beirazko plaka negatiboetan. 1900 ingurukoak ziren eta dohaintzan jaso zituzten 2013ko azaroan.

Argazki horiekin Mondrago beirazko plaketan liburua argitaratu zuten, eta erakusketa egin Kulturaren. Maiatzaren 29an eman zuten AZEkoek horren berri: "Orain arteko argazki zaharrenak dira", zioten, pozik. "Mendia Fonda deitu diogu bildumari, argazkilaria Mendia familiakoa zen-eta".



ARRASATE
Goienaren egoitzaren lagapena sinatuta 20 urterako

Goiena Komunikazio Taldeko ordezkariak eta Arrasateko Udalekoek Otarora Lizentziaduna 31ko egoitzaren lagapena sinatu zuten hilaren 20an, hurrengo 20 urteetarako. Hala, Arrasate Press-ekin hasitako bideari jarraipena emango zitzaioela esan zuten.

OÑATI
Oñatiko Lege Soziologia munduko topaleku izan zen

Munduko 200 aditu baino gehiagoren topaleku izan zen Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea. Haren 25. urteurrenaren ospakizunaren barruan antolatu zuten nazioarteko kongresua maiatzaren 21etik 23ra, eta Iñigo Urkullu lehendakaria ere izan zen.

BERGARA
'KOTXEA GARAJEAN' PROGRAMAK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN

Bergarako Udalak jakinarazi zuen arrakasta izan zuela programak; izan ere, 700 herritarrek sartu zuten autoa garajeetan. Erdialdean eta Bolu auzoan izan zuten arrakasta; TAO txartela dutenen artean, ostera, hogei lagunek bakarrik hartu zuten konpromisoa.

DEBAGOIENA
EH BILDU NAGUSITU ZEN EUROPAKO HAUTESKUNDEETAN

Debagoienean EH Bildu nagusitu zen, 9.150 botoekin (%40,49), eta atzetik EAJ geratu zen, 6.648rekin (%29,42). Hego Euskal Herrian ere EH Bildu izan zen nagusi, 220.147 botoekin. Euskal Autonomia Erkidegoan, ostera, EAJ, 208.151rekin.

100
TXIRRINDULARI

Bergaran egin zuten Emakumezkoen Gipuzkoako Itzuliko atarikoan 100 txirrindulari elkartu ziren eta Leire Olabarria izan zen azkarrena.



BERGARA
700 ikusletik gora moda desfile ikusgarrian

Bergarako San Martin plaza ibil-toki bihurtu eta modeloz bete zen maiatzaren 10ean. 70 bat herritarrek jardun zuten alfombra gorriaren gainean atzera eta aurrera udaberri eta uda sasoiako jantziak erakusten. 700 lagunek jarraitu zituzten modeloen joan-etorriak eserita eta beste askok zutik.

Bergara Bizik antolatutako ekimenak herriko komertzioa bultzatzea zuen helburu eta herriko 32 dendak hartu zuten parte.



ANTZUOLA
Antzuolako alardearen gaineko webgunea martxan

Antzuolako alardearen gaineko webgunea sortu zuten eta maiatzaren 20an aurkeztu. Alardearen Elkarteko kideek jakinarazi zuten alardeak izandako bilakaera jasotzeko asmoarekin eta gizarteratze-ko helburuarekin sortu zutela, baita herritarrendako interesgarria izango zelakoan ere. Hala, material ugari dago jasota bertan, beste batzuen, artean bideoak, argazkiak eta bitxikeriak.



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

URRATS
Podologia Zentrua
PODOLOGIA ETA ORTOPEDIA ZERBITZUAK

Arantzazuko Ama 19 A - OÑATI
Tel.: 943 53 36 37
Orduetgia: 09:00etatik 13:30era
15:30etik 21:00era
podourratsoinati@gmail.com

Zorionak eta urte berri on!

08:30 - 20:30
eguerdian zabalik!

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92
BERGARA

U-10
Yalah Bilbora
NOW Euskal Hemira!
Preso eta iheslariak etxera Kopon!

Iluntz-Dat-Osorik-Ekaitz
Irati-Basati-Etxoste
Amair-Taupa

LEINTZ GATZAGA
ARAZTEGI BERRIA BUKATU ZUTEN, 170 BIZILAGUNENDAKO

Ekainean amaitu eta uztailearen 16an inauguratu zuten araztegi berria. 170 bizilagunendako hondakinak urak garbitzen ditu eta 500.000 euroko kostu izan zuten lanek; Aldundiak eta Ur Kontsultorioak finantzatu zuten. Kontsultorioak ustiatzen du.

DEBAGOIENA
SEXU ASKAPENA BULTZATZEKO MUGIMENDUA SORTU ZEN

Ekain erdialdean jaio zen Debagoieneko Sexu Askapen Mugimendua eta lehen ekintza hilaren 28an egin zuten Eskoriatzako jaietan. Bada, ibarrean sexu askapenaren gainean heziketa falta dela nabarmendu zuten, besteak beste.



ESKORIATZA
JABI CORBAL
KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA

Eskoriatza Kirol Elkarteak 50 urte bete zituen 2014an, eta, horregatik, elkarteko presidente Jabi Corbal izan zen San Pedro jaietako pregoilaria.



DEBAGOIENA
Milaka lagun erabakitze eskubideari helduta

Arrakastatsua izan zen Gure Esku Dagok deituta ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotu zituen giza katea. Milaka debagoiendak hartu zuten parte zazpi kilometrotan banatuta, eta, giza katea amaitu ostean, Bergaran kokatutako festaguneari ere milaka herritar batu ziren. Bergarako koordinatzaile Asier Larrañagaren arabera, Debagoiena "erreferente" izan zen antolakuntzari dagokionez. "Egun historikoa" izan zen, askoren esanetan.



ELGETA
Bost edukiontziko sistemaren aldeko erabakia

Hondakinak batzeko sistemaren gaineko herri galdeketa loteslea egin zuten ekainaren 22an. 926 elgetar zeuden deituta eta 431k babestu zuten Udalean adostutako bost edukiontziko sistema; 497k eman zuten botoa. Galdeketa "serioa" izan zen, alkatearen arabera.



BERGARA
2015ean ekingo diote Miguel Altuna berriari

Bergarako Miguel Altuna Institutua Otsein lantegiaren ingurura eroateko proiektua 2015. urtetik aurrera hasiko da betetzen. Jaur-laritzako ordezkariek ekainaren 3an aurkeztu zuten proiektua; 2018-2019 ikasturterako lekualdaketa gauzatzea espero dute.



DEBAGOIENA
GOIENA, 'EUS' DOMEINUAREN AITZINDARIEN ARTEAN

Hilaren 28an Bilbon aurkeztu zituzten .eus domeinuaren aitzindariak. 92 erakunde osatu zuten aitzindarien taldea, Goiena barne. Ekimena lehen urratsetik babestu zuen Goienak, PuntuEus Fundazioaren oinarrietan sinesten du-eta.

ARRASATE
PORTALOI KULTURA ELKARTEAK 10. URTEURRENA OSPATU ZUEN

Ekainaren 14an Portaloiko Kultura Elkarteak 10. urteurrena ospatu zuen. Pintxo-potea eta herri bazkaria egin zuten eta herriko zein kanpoko kantuzaleek hartu zuten parte kantaldi berezian. Hamar urteotan 200 bat lagun pasatu dira elkartetik.



BERGARA
BEÑAT REZUSTA
BURUZ BURUKO TXAPELDUNA

Beñat Rezusta pilotari bergararrak ekainaren 14an irabazi zuen bere bigarren txapela, orduan buruz burukoan. Ibai Zabalarri 10-22 irabazi zion Tolosako Beotibarren.



OÑATI
MAIDER ARREGI
ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELDUNA

Hilaren 21ean irabazi zuen Maider Arregi bertsolari oñatiarrak Euskal Herriko eskolarteko txapelketa. Orion irabazi zuen finala Arregik.

BERGARA
Behi suhar zaleen lehen bilkura egin zuten

Ekainaren 15ean Euskadiko Behi Suharren I. Eguna ospatu zuten. Egun osoko egitaraua prestatu zuen Bergarako Zezenak enpresak, bi helbururekin: batetik, behi kontuekiko ibarrean dagoen zaleatasuna erakustea eta, bestetik, profesionalak-ganaduzaleak eta errektadoreak-indarrak metatzea: "Nor bere aldetik ibiltzen gara, eta ikusi dugu badagoela elkartzeko beharra", adierazi zuen antolakuntzako kide Iñigo Almoritzak. 42 ganaduzale eta hamar errektadore etorri ziren.



ARRASATE
Debagoieneko Ecoenterra ireki zuen Emausek

Emaus fundazioak ekainaren 11n inauguratu zuen Ecoenterra Arrasateko Bidekurtzeta kalean. Bigarren eskuko denda izateaz gain, formaziorako gunea ere bada bi solairuko gunea. Emauseko arduradun Nerea Kortajarenak honako hau adierazi zuen inaugurazioan: "Herri honen kohesioan parte hartu gura dugu Ekocentretetik". Aldundiak 511.000 euro jarri zituen "beste eredu baten" aldeko proiekturako.



ARRASATE
Sanjuanetako ustezko eraso sexista, "irmoki" salatua

Ekainaren 24ko goizaldean Arrasateko jaietan gertatutako ustezko eraso sexista salatzeak, eta jai batzordeak deituta, ehunka herritar elkartu ziren txosnaguneari "Ez diogu gertaerari berari garrantzia eman nahi, neskaen datuak babesteko eta gertaera isolatua ez dela argi uzteko. Gure asmoa da honako hau gune aske bat dela eta hala-korik onartuko ez dugula ozen esatea", esan zuten jai batzordekoek.



ARETXARGI
aretxargi@aretxargi.com
BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABAETA - GIPUZKOA
943 532 628 645 734 032
INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK

Zorionak eta urte berri on guztioi!




JUBAR®

ATEAK, S.L.



JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON OPA DIZKIZUEGU GUZTIOI!





Ate sektionalak



Ate gidariduna



Pertsiak



Aluminiozko atek



Pibote mugikorak

Garajeko atek
Segurtasuneko pertsiak
Automatismoak
Konponketak
Urrutiko aginte tresna homologatuak
Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak

Kataide industrialdea 18 • Tel.: 943 79 10 20 • Faxa: 943 79 08 17 • 110 PK • ARRASATE
jubarateak@jubarateak.com • www.jubarateak.com

**ARRASATE ETA OÑATI
JULIAN SAGASTA ORGANISTAREN
OMENEZ, LIBURUA ETA DISKOA**

Erroman bizi izan zen Julian Sagasta organista arrasatearraren omenez liburua eta diskoa aurkeztu zuten Arrasaten eta Oñatin. Jose Antonio Azpiazu eta Xabier Ugarte oñatiarrak aritu ziren lanean buru-belarri liburu eta diskoa egiteko.

**ARETXABALETA
HECTOR PRIETO, UDA-KO LEHEN
OHOREZKO BAZKIDEA**

UDAKo zuzendaritzak erabaki zuen Hector Prieto izendatzea lehen ohorezko bazkide, *Pasión celeste* blogaren bitartez emandako laguntzagatik: "Eredua da guztiontzat, fenomeno hutsa!", adierazi zuen futbol taldeko presidente Adrian Merinok.



**BERGARA
REYES
AZKOITIA
PILOTA
ENTRENATZAILEA**

Reyes Azkoitiak eman zien hasiera Bergarako Penteskote jaiet hilaren 6an. Udalaren eskaria "harriduraz hasieran", baina "pozik" hartu zuen Azkoitiak.

8

TONA MUGITZEKO INDARRA

Oñatiko Asentzioko jaietan zortzi tonako kamioia 25 metro mugitzea lortu zuen Igor Urteagak. Herritar ugariaren arreta piztu zuen erakustaldiak.



ELGETA

Espaloia, 10 urtez kultura eta euskara ardatz ▲

Ekainaren 28an 160 lagun elkartu ziren Espaloia Kafe Antzokiarren 10. urteurreneko festan. Kultura eta euskara ardatz izan dituen proiektuaren alde topa egin eta galan bertan Espaloia adierazgarri izan diren askotariko diziplinak elkartu zituzten: magia, musika, dantza, umorea... Era berean, hainbat izan ziren Espaloia lana goraiatu zuten artistak. Elgetarendako "luxua" izan dela uste du bazkide batek.



ARRASATE

Lanbai azoka, enpleguaren alde indarrak batuta ▲

Ekainaren 19an egin zuten Lanbai azoka MUko Goi Eskola Politeknikoak Garaian duen eraikinean. Langabeendako eta enpresendako erakusleioa eta elkartzeko gunea izan zen; 45 bat enpresa batu zuten. Arrasateko Udalak, MUK eta beste zenbait eragilek antolatu zuten.

ARRASATE

Mondraren historia eta istorioak, liburu baten jasoak ▼

Mondra futbol taldearen mendeurreneko ekitaldiak amaitzeko, liburua aurkeztu zuten hilaren 12an. John Andueza eta Marian Porcel izan dira egileak eta Mondrako bazkide Jose Luis Ezkurra eta Fernando Laspiur -argazkian- ibili ziren koordinazio lanetan. Mondraren 100 urtetako hainbat bitxikeria jasotzen ditu lanak.



BERGARA

Lazpiur, munduko kongresu garrantzitsuenan ▲

Bergarako Lazpiur enpresakoak "oso pozik" itzuli ziren Berlingo International Forging Congress izeneko topaketa espezializatutik. Forjaketa sektoreko munduko kongresu garrantzitsuenan da, eta Lazpiur enpresakoak hizlari gonbidatu izan ziren. Lazpiur enpresako ordezkariak "inflexio puntua" io zuten gonbidanena.



ARETXABALETA

Edukiontziena utzi eta atez ateko sistema ezarri ▲

Uztailaren 14an hasi zuten Aretxabaletan hondakinak batzeko atez ateko sistema. Atez atekoari ongietorria emateko ekitaldixoa egin zuten udal ordezkariak; lehenengo egunaren ostean, pozik mintzatu zen Ana Bolinaga alkatea, jendeak ondo erantzun zuela-eta.



**ARRASATE
ALVARO
ARRIZABALAGA
LEZETXIKIKO
ZUZENDARIA**

"Frantzian edo Katalunian txinpartak aterako lizkiokete halako baliabide bati"

3

TOUR

Markel Irizar, Trek taldeko oñatiarra, bere kirol ibilbideko hirugarren Tourrari ekitekoa zen. Fabian Cancellarari harbidean laguntzea zuen helburu.



BERGARA

Elkarbizitza taldea lanerako, Osintxun ►▲

Egitaraua prest eta martxan jartzeko gertu zegoen Osintxun elkarbizitza hobetzea helburu duen taldea, jatorriz bertako zein kanpoko diren lagunez osatua. Batzuek eta besteek elkar ezagutzen laguntzea jarri zuten ekimenaren lehen egiteko. Udalak, Osintxuko Herri Batzarrak eta Emunek koordinatutako ekimena zen (goiko argazkian, denon ordezkariak; eskuinean, kanpoko etorritako auzotar batzuk).



TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean ipintzera arte dena gure esku Fabrikako preziotan

Elgeta bidea, gasolindegitik 300 metrora • BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41

Astelehenetik larunbatera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolezio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L. MARGO LANAK OROKORREAN

Zorionak eta Urte berri on!

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32

antopullmans

Zorionak eta urte berri on!

Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

ARETXABAETA
HERRI GALDEKETA ESKEA,
SINADUREN BABESAREKIN

Bosgarren edukiontzia aldeko plataformak uztaillaren 14an aurkeztu zuen udaletxean hondakin bilketa sistemaren gainean herri galdeketa egiteko eskaria. Hori bera eskatzen zuten 900 pasatxo sinadura eraman zituzten udaletxera.

DEBAGOIENA
DANTZAGELA, ARIZMENDIREN
ETA DANTZAZ-EN LABORATEGIA

Arizmendi Ikastolako 5. mailako 200 ikaslek hartu zuten parte ohiko ikasgaiekin transmititzen diren hainbat gauza dantzaren bitartez transmititzea helburu zuen esperientzia pilotuan. Hiru astez saioak egin eta *Naufraoak* ikuskizuna egin zuten gero.

OÑATI
TURISMO ESKAINTZAREN
ARDURA, OINATURRENTZAT

Herriko turismo eskaintza osoa enpresa berak kudeatzea nahi zuen Oñatiko Udalak, eta deialdi publikoa egin zuen. Azkenean, Oinatur enpresari esleitu zizkion Turismo Bulegoaren, errotaren eta Arrikruzen kudeaketa. Bi enpresa aurkeztu ziren.



ARRASATE
MALEN
RUIZ DE AZUA
PERTIKA
JAUZILARIA

"Motibatuta noa AEBetara [Munduko Txapelketara], gauzak ondo egiteko gogoz"

%70
PARTE-HARTZEA

Antzuolako arrandegietara etxetik tuperra eramanda joaten ziren bezeroen %70. *Ontziratu zaitez!* kanpaina martxan jarri eta ia sei hilabetera lortutako datua.



BERGARA
Olaso dorreko lorategia,
denen eskura ◀▶

Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea fundazioak hitzarmena sinatu zuten, lorategia herritarrentzat zabaltzeko; helburua, herriko ondarea herritarren esku jartzea eta, era berean, turismoa erakartzea. Aparteko Zuhaitz izendapena duen magnolia bat dago bertan, besteak beste (ezkerreko argazkian, Diputazioko aditua magnolia aztertzen; eskuinean, alkatea eta fundazioko ordezkaria). EAJren udal taldeak irregularitasunak salatuta zituen.



ARAMAIO
Udalbiltzaren 'Euskal
Herria-Basque Country'▼

Inon baino lehen inauguratu zuten Aramaion Udalbiltzaren errepide kartela, herriaren izenaren aspian *Euskal Herria-Basque Country* dioena, herrialde bakoitzaren armarririak lagunduta. Jaietako txupinazioa bota eta berehala abiatu ziren herri sarre-rara, kalejiran, trikiti doinuek lagunduta. Askok jaietako zapi gorria lepoan, ume, gazte zein nagusi, alai ageri ziren kartela inauguratzearekin batera egingako argazkian.



ARETXABAETA
EMAZTE OHIARI ERASO EGIN ZION
GIZONEZKO BATEK, LANTOKIAN

Uztaillaren 23an izan zen, emakumea Coprecin lanean ari zela, gaueko txandan. Labankada saiakera izan zen, eta lantegiko segurtasun langileari esker ez zen larria izan emakumeari egindako zauria. Ustezko erasotzailea urrutze agindua edukitakoa zen.



DEBAGOIENA
JON PELI
URIGUEN
BERRIKUNTZA
DIPUTATUA

"Gipuzkoako enpresak berritzaileak dira, baina haien ahulezia da txikiegiak direla"

1,6
MILIOI EURO

Aldundiak Lapatza enpresa elkarteari jarritako zigorra da, 2013an Deskargako obretan izandako istripuagatik; langile bat hil zen ezbeharrean.



BERGARA
Lehenengo Mailako Eibar, Agorrosinen entrenatzen ◀▶

Uztaillaren 14an hasi zituen hain denboraldi berezizko entrenamenduak Eibar futbol taldeak; eta Bergarako Agorrosinen hasi ere. Eibarrek Ipuruz gain belar naturaleko beste zelairik ez, eta Bergarako hautatu zuten lan-saiotarako. Denboraldi-aurre hasieran, gainera, Aitor Arregi bergararra taldean zegoen (goiko ezkerreko argazkian, mutikoekin), nahiz eta gero Cadizera utzita joan.



ANTZUOLA
'Tartalo' eta 'Mari Sorgina',
bi buruhandi gehiago ◀▶

Jaien bezperatan, beste bi buruhandi aurkeztu zituzten: *Tartalo* eta *Mari Sorgina*; Inaki Mata herriko artistak egindakoak haiek ere. Urtebete lehenago, beste bi buruhandi aurkeztu zituzten Antzuolako jaiak hasi aurretikoan; alardeko protagonistak, *Mairua* eta *Buruzagia* izan ziren orduan Matak egin zituenak. Aurten, ostera, euskal mitologiako bi pertsonaia aukeratu ditu; aurkeztu bezain laster hasi ziren, erratzak eskuan, umeekin jolasean, kalejiran.

PESCADERIA
JOXAN
ARRAINDEGIA

Orain, Super Amaran ere bai!
Gabon zoriontsuak, guztioi!

Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29

EuroTaller

Murillo Garajea
Auto konponketak orokorrean

Gabon zoriontsuak
bergarar guztioi!

Leizeaga, 4 - BERGARA
Tel.: 943 76 13 84

Goizperrek gabon jai zoriontsuak opa dizkizue guztioi.

Urte berri on!
2015

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Ihinzadura · Industria · Bioteknologia

LEINTZ GATZAGA
'FRACKING'-ARI EZEZKOA EMAN
ZION UDALBATZAK

Fracking gabeko udalderri. Leintz Gatzaga ere halaxe izendatzea erabaki zuten, bertako udalbatzarrak Fracking Ez Plataformaren mozioa onartu eta gero. Hori horrela, besteak beste, fracking-arekin lotutako baimen guztiak ukatzea onartu zuten.

BERGARA
LUIZIA IZAN ZEN AP-1 AUTOBIDEAN,
LESARRIKO TUNELEAN

Abuztuaren 10ean, Gasteiz-Eibar noranzkoan izan zen luizia, AP-1 autobidean, Lesarriko tunelean. Astebetean konpondu zuten, eta, bitartean, autobideko zirkulazioa by-pass bitartez bideratu zuten. Azaroan beste luizi bat gertatu zen leku berean.

ARRASATE
URREZKO ZELEDOKI LANAK
EGITEN GASTEIZKO JALETAN

San Migel elizan eskaintza egin zioten Gasteizko Andre Mari Zuriari Josemari Velez de Mendizabalek eta Asun Gorosppek, irailen Urezko Zeledoi izendatu zituztenak. Lehenagoko egunetan ere Gasteizko jailetan ibili ziren, Urezko Zeledoi.



BERGARA
AITOR
ARREGI
FUTBOLARIA



ARAMAIO
'ARGI' ETA
FERNANDO
ETXEBERRIA
ARTZAIN-TXAKURRA

Cadiz CF taldeak Aitor Arregi futbolari aurkeztu zuen. Armaginek lagata jokatzeko dihardu Cadizen. Esan zuen "oso pozik eta ilusionatuta" zegoela.

Araian egindako Artzain Txakur Txapelketan eskuratu zuten Argi txakurak eta haren gidari Fernando Etxeberriak txapelidun izendapena.

OÑATI
Kalakane eta Easo abesbatzak, erabateko arrakasta ◀▼

Arantzazuko Santutegia jendez lepo bete zen Madonnarekin biran ibilitako Kalakan taldeak eta Donostiako Easo Abesbatzak eman zuten kontzertuaren harira. Sarrera guztiak agortuta, 19:00etan hasi zen emanaldia, eta, debagoienar ugariz gain, kanpotik ere jende oso bertaratu zen. Horren adierazle, santutegiaren kanpoko aldean sortu zen jende ilara luzea.



OÑATI
Sutea Oñatiko Ane mertzeria-dendan ▲

Abuztuaren lehen hiru hartu zuen Lazarraga kaleko saltokiak. Udaltzaingoak 21:30 inguruan jaso zuen abisua eta suhiltzaileek 23:30ak arte jardun zuten lanean; batez ere, keak eragin zuen kalterik handiena. Eta, badaezpada, dendaren goiko etxebizitzak hustu egin zituzten suhiltzaileek. Irailen zabaldu zuten atzera ere denda.



ARRASATE
Ebolak hildako lehen
europarra ◀

Miguel Pajares abadea izan zen ebolarekin kutsatu eta hil zen lehen europarra (ezkerretik lehen), abuztuan. Bada, abade hori San Juan de Dios kongregazioko kidea zen; Arrasateko Gesalibar auzoan ordezkaritza duen kongregazioko kidea. Aita Menni ospitale psikiatrikoko gaur egungo zuzendari Mikel Tellaezte Monroviako San Jose ospitaleko zuzendari izandakoa ere azaltzen da argazkian Pajaresekin, elkar ezagutzen zuten-eta.

DEBAGOIENA
INOIZKO UDARIK ONENA,
TURISMOARI DAGOKIONEZ

Turismo Sailaren arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 846.000 bisitari baino gehiago izan zen 2014ko udan. Sailburuordeak adierazi zuenez, "historiako udarik onena izan du Euskadik" eta iguera hiru probintzietan izan zen.



ARETXABAETA
JOSE JAVIER
BARKERO
UDA-KO ALEBINEN
ENTRENATZAILEA

Reala utzi eta gero, hara eta hona ibili ostean, Zaragozarekin hitzarmena egin eta herrira itzuli zen Barkero UDako alebekin hasi zen lanean.



ARRASATE
XABIER
BENGOETXEA
FAGOR BERRIKO
ZUZENDARITZA

Fagor Etxetresnetako Kontseilu Errektoreko presidente izan zena fitxatu zuen CNA-Catak, Fagor berriko zuzendaritzako lantalderako.



OÑATI
PAULO
AGIRREBALTZATEGI
OHOREZKO
EUSKALTZAINA

"Euskara samurrago eta erakargarriago egin beharko da euskaldun guztientzat"



ARRASATE
JULEN
AREXOLALEIBA
SORGUNEAK
IKERTEGIKO KIDEA

"Gogo eta esperantza osoa daukagu 'Sarri' bertatik bertara kurtsoan izan dezagun"

ESKORITAZTA
Jose Arana kalea,
oinekoendako ▶

Ekaina ezker norabide bakarra eta irailaren 5etik, zenbait orduz, oinezkoentzako da Jose Arana kalea. Eskoriatzako kale nagusiak itxura berria hartu zuen irailen eta oinezkoek dute ordutik hona lehentasuna. Udalak herritar eta dendariekin kontsultatu eta gero hartu zuen erabakia. Bilera horiek uztailen egin eta irail hasieran ezarri zen kale nagusiaren funtzionamendu berria.



BERGARA
Seminarioko patronoek
trukea sinatu zuten ▶

Irailaren 17an sinatu zuten trukeko akordioa Foru Aldundiak, Udalak eta UNEDek. Errege Seminarioaren eta Arrizuriagaren arteko trukea gauzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.717.000 euroko diru-laguntza eman zion Udalari. Argazkian, ezker-eskuma, Jaiene Isazelaia alkatea, Martin Garitano ahalzun nagusia eta Iñaki Espartza UNED-Bergarako zuzendaria, akordioa sinatu berriren.



ARRASATE
Fagor berria puntuan jartzen hasi zen ▲

Irailaren 22ko astean sartu ziren atzera ere langileak Fagor Gargartzako lantegira, ekoizpenari berrekiteko makinak puntuan jartzen. Hain zuzen, Garagartzako lantegia izan zen Fagor Berrian martxan jarritako lehena.

ELUSU
CONSTRUCCIONES ERAIKUNTZAK S.A.

Tel.: 943 76 45 50 - 679 00 40 89
Arruriaga 5
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
elusuerakuntzak@telefonica.net
www.construccioneselusu.com

10
%
eko
DESKONTUAK!

- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak
 - Lokal komertzialak
 - Teilatuak
 - Sukaldeak
 - Bainuak
 - Fatxadak
- Baserri eta jauretkeen erreformetan eta txaleten eraikuntzan espezializatuak
- Gremioen koordinazioa
- Proiektuak

Gabon zoriontsuak, bergarar guztioi!

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

RPS: 266/13

Tel.: 943 76 56 88
Fraizkozuri 5A, 1-D. BERGARA

25 URTE ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DANOI!

- Ortodontzia.
- Odontologia Orokorra.
- Aho eta inplanteen zirugia punta puntako teknologiarekin.
- Hortz eta aurpegiko estetika.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZIAREKIN.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirugia eta gainontzeko tratamenduak

Zorionak eta Urte Berri On!

Debagoienaren alde lanean

GUZTIOK BAT

==KANPAZAR

Zorionak eta urte berri on!

Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84

ESKORIATZA ADINGABEN TRANSEXUALITATEA AZTERGAI

Shaila Ignacio 7 urteko neska eskoriatzararen kasua ezagutu genuen irailean. Neska transexuala da Shaila eta Eneko izena erabiltzeari utzi zion 4 urterekin. Doluz, ausardiak eta jasotako laguntzaz jardun genuen neskatoaren amarekin.

ANTZUOLA UDAL GIMNASIOAK ZERBITZU INTEGRALA JARRI ZUEN ABIAN

Irailean zabaldu zuten udal gimnasioa zerbitzu berritzaileekin. Nobedadeen artean, gazteentzako zumba saioak eta, krisia kontuan hartuz, spinning low-cost saio bereziak ere antolatuta zituzten, besteak beste, herritarrentzat.



OÑATI SEGUROLA ETA BARRENA ARTZAIN OMENDUAK

Nikolas Segurola eta Maria Angeles Barrena artzainak omendu zituzten Gipuzkoako Artzain Egunean, urteetan egindako lanarengatik.



BERGARA Katxalin elkarteak bulegoa ireki zuen

Katxalin elkarteak, bularreko eta ginekologiako minbiziak jotako elkarteak, bulegoa ireki zuen irail hasieran Bergaran. Ordutik, hamabostean behin, egubakoitzetan egoten dira elkarreko kideak, egun osoz. Errotalde jauregian. Udalak utzitako bulegoa da eta bertara jo dezakete bularreko edo ginekologiako minbizi dutenek eta gaintitutakoek, eta baita haien senitar-tekoek ere. Probintzia mailan egiten du lan elkarteak.



ANTZUOLA Trenbide zaharra garbitu zuten auzolanean

Kaxeta eta Iturriotz arteko trenbide zaharra garbitu zuen herriko kuadrilla batek, eta, hala, paseatzeko, korrika egiteko eta umeekin ibiltzeko lekua berreskuratu zen Antzuolan. Sasi eta naharrak kendu eta ingurua libratzeko makinak erabili zituzten. Goizper enpresaren laguntza ere izan zuten, eta, horri esker, argiak ipini ahal izan zituzten Jauregi-tunel zaharrean; ibilbide oso-tik konplikatuen txukuntzen, hain zuzen ere.



ARRASATE SUDC elkarteak omendu zuten Nobenarixuan

Aurten Maritxu Kajoi Komisiñoak SUDC elkarteak omendu du Nobenarixuan, herrian egindako lanaren aitortza bezala. Elkarteko ordezkariak pozarren jaso zuten ohorezko inbutua, eta, "Arrasateren alde" lan egiten badute ere, halakorik ez zutela espero esan zuten irailaren 26ko ekitaldi berezian. Aurtengo Maritxu Kajoi eguna modu berezian ospatuko zutela aurreratu zuten elkarteko ordezkariak, eurek esan bezala, "opari oso berezia" da-eta.



BERGARA LASAITASUNA EKARRI ZUEN ARCELOR MITTALEN AKORDIOAK

Zuzendaritzak eta lantegiko hiru sindikatuek (ELA, CCOO eta UGT) akordioa lortu zuten Zumarragako lantegia, egoera oso txarrean egonda ere, ez ixteko. Erabakiak Bergaran ere lasaitasuna zabaldu zuen, kezka eragin eta gero.

ARETXABAETA AUZITEGIAK EZETZ NAFARROA KALEKO TANATORIOARI

Tanatoriorik ez dute egingo Nafarroa kalean. Hala ebatzi zuen Donostiako Administrazio Auzitegiko 1. zenbakiak, eta horren berri eman zuen Ana Bolinaga alkateak, auzokideak lasai egon zitezen ere dei eginez, arduratuta azaldu ziren-eta.



OÑATI BIXENTE ATXA MU-KO ERREKTOREA

Goi Eskola Politeknikoko zuzendari kargua utzi eta Josu Zabalen lekukoa hartuko du Bixente Atxak. Izendapena irailean egin zuten.



ARRASATE Bizipozez abordatu zuten Irrien Lagunek herria

Bizipozaren jaia ospatu zuen irailean Irrien Lagunak Gizartegintza Elkartek, Udalaren eta herriko hainbat eragilerekin batera -baita Goiena ere-. Gainera, Irrizale sariak banatu zituzten eta Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak jaso zuen horietako bat. Herri erdialdean egin zuten festa, irailaren 21ean, eta jendetza batu zen antolatutako ekintza zerrenda luzean.

BERGARA San Pedroko organoa babesteko elkarteak sortu zuten

Stoltz-Freres organoak urgentziazko konponketak behar dituela-eta uztailan eratu zuten babeserako Organoaren Lagunen Elkarteak irailaren 24an egin zuen lehen agerraldi publikoa. Azaldu zuten, denbora laburrean neurriak hartu ezean, "herriak duen ondare artistiko berezi eta baliosuenetako bat betiko galduko da". Eraberritze lanek 450.000 euroko kostua dute.

Hemen GARBIKETAK

943 71 48 45

Zorionak eta urte berri on!
Zure konfiantzako garbiketa enpresa

www.hemen-garbiketak.com

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Lokal komertzialak, azalera handiko salto-kiak, hotelak eta enpresak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, ambulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

DEBAGOIENAREN etorkizuna eraikitzen

hari: gara

ehbildu

Zorionak eta urte berri on!

Ibargarai 43 • 20570 Bergara • 943 76 22 48
www.jeanlouisdavid.com

Asteleheneretik Ostegunera: 09:30 > 12:00 / 15:30 > 18:30
Ostirala: 09:30 > 18:30
Larunbata: 08:30 > 12:30
Astelehen, Astearte eta Asteazkenetan %20ko eskaintza
Ostegunetan %20ko eskaintza (mutilak)

Jean Louis David



ESKORIATZA
MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIKO ZERBITZU GUZTIAK ZABALIK
Lanak zirela-eta eskoriatzarrek kanpoko igerileku barik eman zuten uda. Lanak amaitu ostean, urriaren 1ean zabaldu zituzten zerbitzu guztiak Manuel Muñoz kiroldegian. Herritarrei kirola hurbiltzeko helburuarekin festa ere egin zuten urriaren 11n.

ELGETA
OIHULARI KLOWN TALDEAK HILABETEKO IBILBIDEA ELGETAN
Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek urriaren 4an abiatu zuen kultura aro berria Elgetako kafe antzokian. Pailazo jantzi eta lagun arteko giroan estreinatuta zuten etapa berria, Elgetan. Handik hilabetera laga egiten zutela jakinarazi zuten.



DEBAGOIENA
PATXI BAZTARRIKA
JAURLARITZAKO SAILBURUORDEA
"Ez hedabidea, ez Jauriaritza, irakurlea da hedabide baten epaile"



BERGARA

Candy-Hoover enpresaren itxiera iragarri zuten ▶▶

Langileen artean bolo-bolo zebilena urriaren 30ean konfirmatu zuen Candy-Hoover taldeko giza baliaibideetako arduradun Roberto Roncallik. Eta berehala zabaldu zen datua: enpresaren itxierarengatik 152 langile kaleratuko zituzten. Itxieraren eta kaleratzeen baldintzak negoziatzeko epea zabalik zegoela, elkartzasun mezu ugari jaso zituzten langileek. Tartean, Bergarako Udalarrena eta EH Bildurena.



OÑATI

Euskararen jazarpena ardatz izan zuen ikuskizuna ▶

Herritar talde baten ekimenez taularatu zuten, urriaren 31n, *Euskara, añubea eta eguzkibegixa*, Oñatin. Agertokian ikusitakoa 60 pertsona ingururen esfortzua izan zen, eta ikuskizunak bi aldiz bete zuten Santa Ana aretoa. Gogoratzeko, hunkitzeko eta pentsatzeko ikuskizun horietako bat izan zen. "Euskararen bidean, oraindik ere, harri gehiegi daudelako", azpimarratu zuten bultzatzaileek.



ARRASATE

Agur hunkigarria Arbolapetako gaztainondoari ◀◀

Urriaren 29an bota zuten Canuto Arantzabalek 1900. urte inguruan landatutako indiar gaztainondo. Herritarrek aurretik egindako omenaldi jendetsuak agerian utzi zuten zuhaitz berezia zela arrasatearrendako. Omenaldi beroa bezain hunkigarria egin zioten. Gaia bor-bor ibili zen sare sozialetan, herritarrek *selfie*-ak atera zituzten arbolaren aurrean...

ARRASATE
LANAK BARRENATXOKO AZTARNAN NABARMENTZEKO
Uribarri auzoan dagoen errota bereziaren balio arkeologikoa mantentzeko obrak abiatu zituen Arrasateko Udalak, urri hasieran. Balio handiko aztarnak direla ohartarazi du behin eta berriz Arrasate Zientzia Elkarteak, eta horregatik Udalaren ahalegina.

ARETXABAETA
'OLYMPICS', ARATZEKO KIDEEN OLINPIADAK PANTAILA HANDIAN
Urriaren 10ean eman zuten Zaria aretoa Aratz eta Atzegiko kideek egindako *Olympics* filma. Bi urtetik behin egiten dute pelikula bat, eta aurtengoa Ibai Zangituren eta Mikel Alberdiren laguntzarekin grabatu dute. Ikusle ugari elkartu ziren Zariaen.

ARRASATE
FERIXALEKUAN DOAKO TAO SISTEMA MARTXAN
Urriaren 23a ezker dago martxan doako TAO sistema Ferixalekuan. Asteleheneetatik zapatuetara dago indarrean 50 autorentako lekua duen aparkalekuan. Gehienez 90 minutuko egonaldiak egin daitezke sistema berriarekin.



OÑATI
FRANCISCO LETAMENDI
EHU-KO IRAKASLE EMERITUA
"Erabakitzeko eskubidea gauzatzeko adostasun zabalak lortu behar dira"



BERGARA
ASIER GARITANO
LEGANES TALDEKO ENTRENATZAILEA
Futbol Federazioak Rafael Cobo saria eman zion bergararrari. Espainiako futbol talde nagusiaren hautatzaile Vicente del Bosqueren eskutik jaso zuen.

OÑATI

Barraken gunean hiru udaltzain zaurituta ▶

Urriaren 7an gertatu zen. Barra-ketako langile batek hiru udaltzain eramane zuten aurrean. Bi langileren artean piztutako eztabaida baretzera joandako udaltzainek zaurituta amaitu zuten, bi langileetako batek kamioiarekin aurrean eramanda. Bi udaltzainek berehala jaso zuten senda-agiria. Hirugarrena Donostiako ospitalera eramane zuten. Atxilotu ostean, kamioi gidariak Bergarako epaitegian deklaratu zuen. Epaiketaren zain dago.



BERGARA

Txapa Irratiak 30. urtemuga ospatu zuten ▶

Bergarako Txapa Irrati libreak 30 orduko maratoiarekin ospatu zuten urtemuga urriko hirugarren aste bukaeran. Entzun eta ikusi egin zen Txapa aste bukaera osoan: Seminarioko karpara atera zuten irratiak, eta handik esatari eta gonbidatu ugari igaro ziren. Askatariko herritarrek batu zituzten etenik gabeko 30 orduko irrati maratoiak. Irratiaren historiaren gainbegiratu, zuzeneko musika emanaldiak eta saio berrien aurkezpena egin zituzten.



BERGARA

Pasodoblea herriko zezenzaleen omenez ◀

Bergarako Udala Musika Bandak urriaren 19an estreinatu zuen Igor Larrañaga Guridik herriko zezenzaleen omenez idatzitako pasodoblea. Aurkezpenean, lepo bete zen pilotalekua, eta Bergarako zezenzaleei asko gustatu zitzaiezen pieza: "Doina oso ederra da, eta CD baten erangoa dugu", esan zuen Bergarako zezenzale Inigo Almortzak. Aurrerantzean egiten dituen zezenketa saio guztietan ipiniko duela adierazi zuen Almortzak.



ARETXABAETA

'Pagia ezkurtxotan' izeneko proiektuaren aurkezpena ▶

Aretxabaletak ere bere moneta izango du laster: ezkurtxoa. Eta Udalak hainbat eragilerekin elkarlanean *Pagia ezkurtxotan* herri proiektua aurkeztu zuen, urriaren 14an. Izan ere, asmoa da urtarri-lean ikastetxeetako neska-mutikoak ezkurtxoak erabiltzen hastea.

Bergarar guztioi Zorionak eta urte berri on!

Azpeitxi
Etxagi
Irish Pub Galways
Bule
Euxeblo II

Toki Ona
Bodegola
Usoa
Ariznoa
Pol Pol

Elgetako Udala
www.elgeta.eus

Zorionak, Elgeta!

Herri bizia urte bizia!
Heldu indarrarekin 2015ari!



ELGETA EGUZKI PLAKA LAPURTU ZUTEN ESTAZIO METEOROLOGIKOTIK
Giltzarropoa apurte, eta Estatuko Meteorologia Agentziak Pagatzen duen estazioko eguzki plaka eraman zuten, urriaren 29an. Energia iturri zen plaka, eta bigarren sistema bat izanik lapurretak ez zuten eraginik izan datu bilketan.



DEBAGOIENA URKO ARISTI
TOKIKOMEKO PRESIDENTEA

"Uste dut aurrera elkarlanean egingo dugula, edo ez dugula egingo"

500 BOLUNTARIO
Urriaren 18an 500dik gora debagoienar aritu ziren Deba ibaia garbitzen. Sakon garbitu zuten, besteak beste, herritarren kontzientzia pizteko helburuarekin.

ARRASATE Lore Gazteak dantza taldeak mende erdiko historia

Oraingo eta lehengo dantzariak elkartu zituen Lore Gazteak taldeak 50. urtemuga ospatzeko. Dantza izan zen protagonista urriaren 25eko ekitaldian, eta 250 lagun inguru elkartu zituen ekitaldiak. Omenaldiak, nerbioak, musuak, animoak, bazkaria... denetik egon zen. Oroitzapen goxoak dituzte orain gordeta. Tartean, Arrasateko plazan ateratako taldeko argazki erraldoia.



ARRASATE Maritxutako Goienaren 'photocall'-ak arrakasta

Palestinarraino bidali du, aurten, Maritxuk elkartasun mezu ozena. Orro eta oinaztu artean egin zuten agerkundea Kajoiko birjinak, eta bonbardaketan oihartzuna ekarri.

Giro ezin hobean joan zen Maritxu Kajoiegun, eta erantzun bikaina izan zuen Goienak udaletxeko arkupeetan ipinitako photocall-ak. Boto gehien lortutako argazkiarekin, gainera, poster berezia egin zuen Goienak.



ARRASATE Hizkuntza-ohiturez jabetzeko funanbulista saioa

Arrasateko euskalgintzak —tartean Goiena— Denis Josselin frantziarraren saioarekin abiarazi zuen, urriaren 24an, *Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea baina gauza zailagorik* kanpaina. Funanbulistak zur eta lur utzi zituen Arrasateko plazan elkartutako ikusleak. Kanpainaren mezua argia da: hizkuntza-ohiturak aldatzeko borondatea da kontua, nahi izate. Ondoren egindako lehiaketaren bitartez sariak banatu dituzte.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
• K-21
Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK ARRASATE ERAIKUNTZAK SL
ARRASATE
Meatzerreka auzoa
Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e. arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA
ESKORLATZA
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK ARGÍ-PLASTIK
ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINNTZA MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatze sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

BERGARA CANDY-KO LANGILEEK MOBILIZAZIOAK HASI ZITUZTEN
Bergarako planta itxiko zela jakin ostean, mobilizazioekin hasi ziren hango langileak. Elkarretaratzea egin zuten Bergarako plazan, eta Urkullu lehendakariari "babesa" eskatu zioten. Era berean, arduradunak "gezurretan" ibili direla salatu zuten.

BERGARA DAVID GARTZIA, BOSGARREN URTEZ AZKARRENA KROSEAN
Soraluze-Bergara krosaren 10. urteurrenean, David Gartzia izan zen azkarrena. Bosgarren garaipena jarraian lortu zuen durangarrak. Bestalde, urteurrena ospatzeko, Dordokarendako dirua biltzeko jaia egin zuten Antxintxika taldearen eskutik, Irrien Lagunak klubekoekin.

OÑATI EUSKARAREN JAZARPENA ARDATZ ZUEN IKUSKIZUNA
Euskara, añubea eta eguzkibegixa delako ikuskizuna estreinatu zuten. Antzerki, musika, dantza, ikus-entzunezko material eta lekukoek kontakizunekin osatu zuten ikuskizuna Bernat Alberdik, 60 pertsonak parte hartu zuten.

ARRASATE JAVIER SOTIL MONDRAGONEKO PRESIDENTEA
Javier Sotil bergararra izendatu zuten Mondragoneko presidente. "Oso erronka erakargarria" dela esan zuen Sotilek izendapena jaso ostean.

ELGETA REBEKA UBERA ARALARKO IDAZKARI NAGUSIA
%85,7ko babesarekin izendatu zuten Rebeke Ubera elgetarra Aralarko idazkari nagusi. Patxi Zabaleta ohorezko presidente izatera pasa zen.

BERGARA Lazpiur enpresak 100 urte bete zituen

Iñigo Urkullu lehendakaria eta Martin Garitano diputatu nagusia buru zutela ospatu zuten Lazpiur enpresaren mendeurrena. 150 gonbidatu elkartu ziren Bergarako fabrian. Ordezkarri politikoei Lazpiur "euskal enpresa txikien sinboloa" dela esan zuten, eta beste enpresa batzuekiko "eredugarri" ere bai. Egun LAZpiurren lan egiten duten 112 langileendako eta langile ohienendako esker oneko berbak izan zituen Miguel Lazpiurrek.



OÑATI Txantxiak trukatzeko bulegoa zabaldu zuten

Euroak txantxiengatik trukatzeko bulegoa zabaldu zuten udalderetako beheko solairuan. Oñatiarrek 10 eta 50 zentimoko txantxiak eta txantxi bateko, bosteko, hamarreko eta 20ko balioa zuten txantxiak trukatzeko eta erabiltzen hasi ziren. 86 komertzio, establezimendu eta negoziok egin zuten bat ekimenarekin. Herriko merkataritza bultzatzeko helburua du Oñatiko Udalak abian ipinitakoa.



ARETXABALETA Aretxabaletako Herriko Plazan moda desfilea

Aretxarte merkatarien elkartearen eskutik, modaz bete zuten Aretxabaletako Herriko Plaza. Herriko merkatarien jantziekin eta orrazkerekin modan egotea posible dela erakutsi zuten aretxabaletarrek. Adin askotariko herritarrek parte hartu zuten desfilean eta helburuak guztiz bete zituztela esan zuten antolatzaileek: herriko merkataritzari bultzada eta indarra ematea.

ELAY Taldea

BIKANTASUNARI BEGIRA EGINDAKO LANA

Lizarragako Hiribidea z/g
20577 Antzuola
Gipuzkoa
Tel.: 943 76 61 00
Faxa: 943 76 62 62
www.elay.com

UGARTE AROZTEGIA - ALTZARIAK

Zorionak eta urte berri on!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Projektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak



ANTZUOLA EMAKUMEEN FUTBOL TALDEA 13 URTEREN OSTEAN

Kadeta mailako emakumeen futbol taldea osatu zuten. 13 urtean emakumeen futbol gabe egon ostean, Erik Lizarralderen aginduetara hasi ziren jokatzeko Gipuzkoako txapelketan. Helburu zehatz barik, "talde giro ederra izateaz harro" zeuden.

ARRASATE GOIENA PAPERAREN AZALA EUROPAKO ONENEN ARTEAN

Egunkariaren alorreko Oscar sariak bezala ezagun diren European Newspaper Awards sariketan Fagor Etxetresnen itxierari buruzko azal berezia saritu zuten. Iñaki Iturbe bergararra da Goienaren diseinu arduraduna eta harena zen lana.

1,3 MILIOI EURO

Andoni Larrabe arrasatearrak dirutza hori irabazi zuen Main Event poker txapelketan. Seigarren bukatu zuen munduko probarik esanguratsuenan.

ARRASATE Jul Bolinagari omenaldi hunkigarria egin zioten ▶

Bergarako gaztetxean kontzertua ematen zegoela hil zen RIP taldeko gitarra-jotzaile ohia. Gertatutakoa irentsi gabe, omenaldi hunkigarria egin zioten hiru egun geroago haren lagunek Monterronen. Han elkartu ziren RIPen garaiko Julen lagunak, hil zenean jotzen ziharduen The Potes taldeko lagunak, beste hainbat musikari, herritar, senitartekoak... Omenaldian, Julendako esker hitzak, musika eta bertsoak izan ziren protagonista.



BERGARA Askotariko erabilera izango duen aretoa ▶

Seminarioko elizak barruan izango duen aretoa eraberritzeko aurre-proiektua aurkeztu zuten. Vaumm enpresak egindako proiektuak hiru ardatz nagusi zituen: ondarearen errespetua, askotariko erabilera izango duen aretoa eta iraunkortasun ekonomiko, hain zuzen. Aurkezpenaren ostean, kultura taldeekin prozesua hasi zuten. Hurrengo pausoa proiektua idaztea izango da, eta, epeak betetzen badira, otsailerako idatzita egongo da.



DEBAGOIENA 9.358 euro Ziburuko ikastolaren alde ▶▶

Kaskarotenea ikastolaren egoera larriaren aurrean elkartasun krosak egin zituzten Arizmendi, Aranzadi eta Txantxiku ikastolatan. Ziburuko ikastola zabalik mantentzen lagutzeko dirua biltzea zuen helburu, eta hori lortzeko askotariko ekintzak egin zituzten herri horietako ikastolek. Guztira, 9.358 euro batu zituzten Bergaran, Arrasaten, Oñatin, Eskoriatzan eta Aretxabaletan egindako krosetan, euro bateko izen-emate sinbolikoari esker.

LEINTZ GATZAGA TRIKITI ESKOLA SORTU ZUTEN 23 HERRITARREKIN

Ines Osinagaren gidaritzapean sortutako trikiti eskolan 23 pertsonak dihardute. Alde batetik, pandero taldea sortu zuten 15 bat neska-mutikorekin; eta beste alde batetik, trikiti taldea, zortzi lagunek. Eguenero elkartzten dira.

ESKORIATZA TRATU TXARREN EGOERETARAKO PROTOKOLOA AURKEZTU ZUTEN

Clara Campoamor elkarteak gizarte laguntzaileek eta udal ordezkariak aurkeztu zuten tratu txarren egoerarako protokoloa. Hala, "jarraibidea markatuta" dute eskoriatzarrek eta protokoloarekin bat egitea "garrantzitsua" dela esan zuten.

OÑATI ANTONINO IBARRONDO MUSIKARI ZENA OMENDU ZUTEN

Antonino Ibarondo hil jai zela 100. urteurrena ospatzeko 36. Musikegunak egin zituzten. Ibarondoren omenez liburua eta diskoa kaleratu zituzten, eta herriko hainbat musikari eta abesbatzetz kontzertua egin zuten parrokian.



LEINTZ GATZAGA Argazki handia, eskola txikiaren alde ▼

Eskola txikia gura dute gatzagarrek datorren ikasturterako, eta azaroan proiektuaren aldeko herri argazkia egin zuten. Gatzagatik ez ezik, Angiozartik eta Ezkio-Itsasotik -bi toki horietan badute eskola txikia- ere batu zen jendea. Horren aurretik, baina, sukaldetako lan handia egin zuten urtean herritarrekin, eta proiektu sendoa landu, Eusko Jaurlaritzan aurkeztu gura dutena.



ANTZUOLA 30 urteko senidetzea ospatu zuten Antzuolan ◀◀

Aihertarren bisita izan zuten antzuolarrek. Bi herrietako alkateek hitzarmena sinatu zuten 30. urteurrenagatik, Beltzuntze elkarteari Antzuolako bandera eman zioten eta Aiherratik ekarritako gaztairondoa landatu zuten. Bestalde, lehen aldiz, gaubeila egin zuten. Bertsolariak, antzerkia eta Niko Etxarten kontzertua izan ziren ardatz nagusienak.

ESKORIATZA Fagor CNAk garbigailuekin hastekotan zela esan zuten ▶

Fagor CNAk 2015eko lehen hiruhilekoan Arrasateko Garagartzako lantegian garbigailuen ekoizpena hasiko zuela esan zuten. Fagor CNA Groupeko arduradunek bideragarritasun plana, enpresaren egungo egoera eta etorkizunerako proiektuak partekatu zituzten Arantza Tapia, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailburuarekin. Egun batzuk lehenagotik Eskoriatzako etxetresna txikien lantegian lanean hasita zeuden.



Diseinua, ingeniariaritz, prototipoak, fabrikazioa eta kontrol tresnak, dena zure esku



Produktuen garapena

Kontrol tresnak



diseinua

plastikozko eta txapazko piezentzat



bisio artifiziala



fabrikazioa

prototipoak

Gabon zoriontsuak eta Urte berri on!

Ekide SL Telleria kalea F2 20500 Arrasate Tel.- 943 71 25 43 www.ekide.es

RPS: 2009/13

LILURIA
EDERTZE INSTITUTUA

Bidekurutzeta 7 1a - Bergara - Tel.: 943 76 31 71
www.lilura.com

Zorionak eta 2015 urte berri on!

Atxabalatar danoi Zorionak eta urte barri on!

Aretxabaletako Udala

OÑATI TXINPARTA ERROMERIA TALDEAK AGUR-KONTZERTUA EMAN ZUEN

25 urteren ostean, Txinparta taldeak agur-kontzertua eman zuen Oñatiko gaztelekuan, ibilbidean zehar ondoan izan dituzten lagun, senide eta jarraitzaileendako. Erromeria taldeak dantzan jarri zituen bertaraturako 300 lagunak.

BERGARA MARTXANTERAK TALDE FEMINISTA SORTU DA

Herrian feminismoa bultzatuko zuen talde baten falta zegoela sumatu ostean sortu zen Martxanterak taldea. Herriko euskarari, saltsera edo sorgintxo esan nahi du martxantera-k. "Sorgin ona, betiere", azaldu zuten taldeko kideek.



BERGARA
KOLDO
LASA
SUKALDARIA

Bergarako Lasa jatetxeak Repsol Gidako eguzki bat lortu zuen. Repsol eguzkiak sukaldari eta jatetxe onei eskainitako prestigiozko sariak dira.



ARRASATE
IVAN
VELASCO
TXIRRINDULARIA

Ivan Velascok agur esan zion zirkismo profesionalari, iazko Espainiako Vueltan izandako erorrikotik ezin izan da-eta nahi bezala errekerperatu.



OÑATI
JUAN
ZELAIA
ENPRESARIA

Nabarralde saria eman zioten Juan Zelaia. Nabarraldetik esan zuten Euskal Herriko proiektu asko isilean eta eskuzabaltasunez bultzatu dituela.



ARRASATE Lezetxiko humeroa Europako zaharrena da

Lezetxikiko humeroa da Europako giza aztarnarik antzinakoenena. 164.000 urte ditu, gutxienez, eta Iberiar penintsulan aurkitutako gizaki hezurdura zaharrena da. Atapuercakoen ostean. Arrasateko Lezetxikiko haitzuloa duela 50 urte aurkitu zuten Jose Migel Barandiaranek eta Jesus Altunak. Orain, humeroaren DNAREN azterketa egingo dute eta jakin ahal izango dute gizonezko batena edo emakumezko batena - hala uste dute - ote den.



DEBAGOIENA

Urte berriarekin, geltoki berria Elorregin

Geltokiarekin batera, 40 bat urteko aparkalekua eta 10 bat bizikleta uzteko aparkalekua ere prest izango da 2015ean estreinatzeko. Lanok egiteko, 100.000 euro inguru inbertitu dituzte, eta, iragarri zuten, urte hasierarako erabiltzaileendako prest izango da Elorregiko geltoki berria. Geltokiak bost metroko zabalera, estalkia, led argiak eta bertatik pasatzen den bidegorriarekin lotura izango ditu.



ANTZUOLA

Auzo-konpost guneak egokitzen hasi ziren

Konpost-guneak egongo diren lekuak egokitze lanak hasi zituzten herriko hainbat gunetan: lurrak prestatu, hartxintxarra bota, zeloskiak jarri eta sarrerak egin zituzten. Ondoren, konpostagailua eta informazio panelak jarri zituzten. Sagastin, Ibarrondin, Antiguan, Errekalden, Eguzkin, San Joxepen eta Lizarragan jardun zuten. Antzuolako Udala 2015eko urtarrean hasiko da auzo-konpostarekin.



OÑATI CEGASAKO OÑATIKO LANGILEEK LANEAN JARRAITUKO DUTE

Sherpa Capitalen eskaintza epaitegiari onartuta, 131 langileek jarraituko dute lanean: Oñatiko lantegiko guztiak eta Gasteizko beste 65 inguru. Txanponaren beste aldean daude kalera joan diren Cegasa Taldeko gainontzeko 320 langileak.

BERGARA AITZIBER PLAZAOLARI AKUSAZIOA ERRETIRATU ZIOTEN

Auzitegi Nazionalako gazte independentisten aurkako auzian, Aitziber Plazaolari eta beste hamaika auzipeturi akusazioa erretiratu zien fiskalak. Atxiloturiko auzipetu guztiak salatu zituzten torturak eta defentsaren perituak egiazkotzat jo zituen.

OÑATI URBIA TABERNA MITIKOAK ATEAK ITXIKO DITU BETIKO

Urtea bukatzearekin batera itxiko ditu areak betiko Urbia tabernak. 43 urteren ostean, abenduaren 30ean zabalduko dute azkenengoz. Santi Muxikak eta Lourdes Mendizabalek afari asko dituzte enkargatuta dagoeneko, agur moduan.



BERGARA

Elikagai Bankuak 200.000 kilo batu ditu

Bergarako Elikagaien Bankuak iaz baino 60.000 kilo gehiago batu ditu aurtentzen; guztira, ia 200.000 kilo elikagai. Mutrikutik hasi eta Ikaztegiara mapan lerro zuzena botata, eta Debagoiena. Esparru horri dagokio Bergarako Elikagaien Bankuan batutakoa. Tecnosystem enpresak utzitako 1.500 metro koadroko pablioian elikagai kamioiak sartu ziren. Erantzuna benetan ikusgarria izan zela zioen Jose Antonio Agirrebeña arduradunak.



ARETXABAETA

Otsailetik aurrera Udalak kudeatuko du Ibarra

2015eko otsailetik aurrera Udalak kudeatuko du kiroldegia. Udalak bi lehiaketa dei egingo ditu: batetik, garbiketa zerbitzua esleitzeko; eta bestetik, harrera, mantentze-lanak eta kirol jardueretako begiraleak. EAJK uste du Udala Gobernuak ez duela "interesik" izan kiroldegia erabiltzeko eskatu zion kiroldegia erabiltzeko arduraritzen den enpresen elkarteak jarrai dezan. Ana Bolinaga alkateak zerbitzuetan ez dela aldatzeko erabakia erabaki du. 24 urteren ostean, abenduaren 4an aske geratu zen Aitto.

OÑATI

'Aitto' aske, 24 urte kartzelan egon ostean

Auzitegi Nazionalako Zigor Aretoko Lehen Sekzioak agindu zuen Frantziar egindako espetxealdia kontuan hartzeko eta delitu berarengatik Espainiako auzitegien aginduz bete beharreko kartzela zigorra kentzeko. Hala, zigorra berriz kalkulatzeko eskatu zion presoaren espetxe zuzendaritzari. Irizpide berria kontuan hartuta, 2013ko abuztua ezkerrean egon behar lukeela adierazi zuen. 24 urteren ostean, abenduaren 4an aske geratu zen Aitto.

ILE ♀ ♂
ILE ADAINDEGIA
 Andra Mari plaza 2
 Tel.: 943 76 81 97 ELGETA
 meriyuelgeta@hotmail.com

Gabon jai zoriontsuak elgertar guztiei!

SCREEN

ibili

Behar dituzun sukaldeko tresna guztiak eta gehiago

f t g+ p

Hilero gure produktuen zozketa Facebook-en

ibilimenaje.com

GOIKOETXE HARATEGIA

ZORIONAK eta urte berri on!

Salbador kalea 1 ELGETA
 Tel.: 943 78 82 06

Mobiliario ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 Aretxabaeta
 943790807
 mobiliarioarenaza@hotmail.com

Gabon zoriontsuak guztiei!



BERGARA

San Juan auzoko basiliza, erabilera askotariko areto ▶

Auzolanean herritu zuten San Juan auzoko basiliza. Barruko lanak egin aurretik teiltua ere aldatu zioten. Aurrerantzean, erabilera askotariko aretoa izango da basiliza.

Prozesu osoak 50.000 euroko kostua izan zuten; Udalak Aldundiarekin batera jarritako 30.000 euroak nahikoak ez zirenez, auzokideen eta inguruko enpresen babesa izan zuten. Batzuek diruz lagundu zuten eta beste batzuek, aldiz, auzolanaz.

ELGETA

Hiri-hondakinak biltzeko sistema martxan da ▶

Sistema berriari esker, gehiago sailkatu gura dute, horixe da helburu nagusia. Egun, %33,57 sailkatzen dute elgetarrek, eta %70-80a heltzea da asmoa. Kendu egin zituzten hondakinak nahastuta hartzen zituzten edukiontzit berdeak, eta haien ordez errefusarenek —grisak— eta organikoarenak —marroiak— ipini zituzten. Txartelarekin zabaltzen dira edukiontzit berriak, eta nor berea du; bana etxebizitzako.

ANTZUOLA
ERAIKIN ETA ESPAZIO PUBLIKOEN GAINENGO IRITZIAK BATU ZITUZTEN
Herritarrek eta hainbat eragile-tako ordezkariak elkartu ziren Olaranen, herriko eraikin eta espazio publikoen gaineko iritziak batzeko; 26 lagun. Iradokizun horiek garbira pasa eta aztertzea izango da hurrengo pausoa. 2015ean, herritarrei erakutsiko diete.


65
INDARKERIA KASU



DEBAGOIENA ENEKO BIDE GAIN MU-KO IRAKASLEA

"Euskarazko hedabideen balio soziala hizkuntzarena baino handiagoa da"

Urtea hasi zenetik, emakumeen kontrako 65 indarkeria kasu artatu zituztela 2014an jakinarazi zuen Bergarako Udalak kaleratutako txostenean.



OÑATI

Errekaldeko Urgain eskolako patioa zabalik dago ▶

Errekalde auzoko Urgain herri eskolako jolas eta kirol gunea zabalik egongo da aurrerantzean. Urgainek eta Udalak akordioa adostu ostean, jaiegun eta asteburuetan zabalduko dute herritarrendako: 10:30etik 20:00etara. Patioan ez da zaintzailerik egongo eta Udala arduratuko da han dauden altzarrien mantentze-lanean.



Urteko onena & txarrenea


Krisia eta ondorioak dira txar moduan errepikatu direnak; Gure Esku Dago eta presoak etxeratzea, berriz, onenen artean



IÑAKI KORTAZAR
AITZORROTZ KULTURA ELKARTEA ESKORIAITZA



LARRITZ ARRIOLABENGOA
MUSIKA IRAKASLEA ARAMAIO



IDOIA ALEPURU
ARETXARTE MERKATARI ELKARTEA ARETXABALETA



ARANTZAZU IBARRO
LIBURUZAINA OÑATI



JOSE ANTONIO AGIRREBEÑA
BERGARAKO ELIKAGAI BANKUO ARDURADUNA BERGARA

BI PRESOREN ETXERATZEA
"Hainbat aipatuko nituzke: atez ateko sistemaren ezarpena herrian eta lortutako birziklapen datuak; etxera etorritako bi euskal presoren etorrera; eta aurki Zaldibar antzokia zabalik izango dugula".

JASO DUDAN BABESA
"Aramaion musika ikasketak izateko emandako lehenengo pausoei izan duden babesa. Udalak eta herritarrek eman didaten konfiantza; izugarriko indarra ematen didate bide honetatik segitzeko".

ARETXARTEK BAZKIDE GEHIAGO
"Herri merkatariek elkarrekin bazkide kopuruak gora egin duela aipimarratuko nuke; eta, era berean, elkar horrek Udalarekin eta herriko beste eragile batzuekin urtean zehar egin dituen ekintza mardoa".

LIBURU DIGITALAK
"Arlo profesionallean, liburu digitalak maileguan ematen ditugula Oñatiko liburutegian. Orokorrean, berriz, Eskozian eta Katalunian egin dituzten prozesu demokratikoei".

JENDEAREN ELKARTASUNA
"Herriarrek izugarri ondo erantzun diote janariak biltzeko deialdiari. Kanpainak asteburuaz gain, deika aritu dira herritarrek, eta baita bailarako enpresak ere. Eskertzea da hori, benetan".

HERRITARREN LISKARRAK
"Atez ateko sistemak herritarren artean sortutako liskarrak nabarmenduko nituzke; herritar batzuk biltzea sistema hori oztopatzeko ahalegin bereziak egiten ari dira, kaleak zaborrez betetzen, adibidez".

USTELKERIA
"Agintariak herritarrei zentuz jokatzeko eskatu digute: zergak igo, soldadak jaitsi, murrizketak gizarte arloetan... eta bitartean, haiek, inongo lotsa barik, gure diruarekin poltsioak bete dituzte".

LAN-KARGA HANDIA
"Aretxarte elkarteko bultzatutako ekintzek gora egin duten neurrian, gora egin du, era berean, momentu puntualetan bada ere, horiek aurrera ateratzeko bazkideok izan dugun lan-kargak".

LIBURUTEGI KANONA
"Lanari dagokionez, 2015ean liburutegiei ezarriko zaien kanona. Orokorrean, munduko pobrezia, eta ikustea Brasilen dauden politikariak ez direla ados jartzen ingurumena zaintzeko erabakietan".

POBREZIAREN IGOERA
"Beharrak gora egin duela. 2011ko apirilean egin genuen lehen banaketa: 282 pertsona eta zortzi erakunde ginen orduan. Abenduan, 4.000 pertsona janari beharrea, eta 34 erakunde laguntzen".



JABI ETXANIZ
ANELKAR ANTZUOLA



JON ODRIUZOLA
TXIRRINDULARI OHIA OÑATI



PEDRO MARI UBERA
ERRETIRATUEN ELKARTEKO PRESIDENTEA ELGETA



ELENA LAKA
TOPAGUNEKO LEHENDAKARIA BERGARA



JOANNES MENDIZABAL
GUREL ELKARTEA LEINTZ GATZAGA

GURE ESKU DAGO GIZA KATEA
"Ekainaren 8ko giza katean ikusitako irudiak, jendea, ekintzak... Gure erabakitze eskubidea aldarrikatzeko nahia badagoela adierazten baitu, nahiz eta bidea erraza ez izan".

TALDEA SORTZEA
"Errepidean ibiliko den talde berria sortzea, duda barik. Horixe izan da nire ametsa, taldea sortzea, eta oso pozik nago. Lan handia egin dugu; asko kostatu zaigu, baina lortu dugu".

HARTU-EMANAK
"Elkarteen eta herritarren artean harreman dagoenean, gauza asko gehiago egin daiteke. Elkarlanak fruitu onak ematen ditu. Zenbat eta hartu-eman hobea, orduan eta emaitza hobekia".

HERRITARREN EKIMENA
"Egoera zaila izanda, herritarren ekimenez aurrera eramaten diren proiektu txikiak: denda berriak zabaltzea, auzolaneko kultur proiektuak bultzatzea, elkartasun ekimenak, gizarte mugimenduen tema gauzak aurrera ateratzeko".

PRESOREN ETXERATZEA
"Urte luzez preso egon diren bi herritar etxera itzuli dira; oso pozgarria izan da. Ea datorren urtean falta zaizkigun guztiak etxeratzeko ditugun eta *tutuen iturri*-ko ura edanez ospatzen dugun!"

KRISIAREN ONDORIOAK
"Urteotako krisiaren ondorioz, gazteek ez dutela euren lan proiektuak hemen burutzeko ilusiorik. Pertsonalki, etxeko senide baten galera eta lankide batzuek istripu gogorrik izatea".

OZTOPOAK
"Talde berria sortzeko bidean izan ditugun zailtasunak eta oztopoak izan dira okerrean. Horrelako proiektu bat ateratzeko elkartasun handiagoa behar da, baina zailtasun asko izan ditugu".

PENTSIOTAK
"Erretiratuaren pentsioak ez dituzte mugitzen. Egin dira protesak, manifestazioak, elkarretaratzeak... baina ez dago erantzunik. Zenbait alargunen egoera oso kezagarria da".

KRISIAREN ONDORIO LUZEA
"Gizarte laguntzetatik bizitzeko beharra horrenbeste izatea, elikagai bankua beharrezkoa izatea; sortzen diren enpleguak kalitate eskasekoak izatea. Erakundengaitasunetik nabarmena egoerari buelta emateko".

LOMCE LEGEA
"Guraso elkarrekin LOMCE legeak kezka handia sortu du. Erabat atzerakia da eta haurren hezkuntza diren enpleguak kalitate eskasekoak izatea. Erakundengaitasunetik nabarmena egoerari buelta emateko".

Saunier Duval

GIPIUZCOA
Sematec
LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21
20570 Bergara
Tel.: 943 76 06 61

www.sematecguip.com
bergara@ofisat.net

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

behar duela. Inteligentzia egin behar diogu aurre erronka horri.

MUNDUA

Europar krisiak kontrako korrontean hartu gaitu, hainbat herrialdek dituzten zorpetze maila larriei aurre egiteko beharrezko instituzioak eraiki gabe. Krisiak era oso bortitzean eragin die Portugal, Grezia, Espainia eta Irlandari; eta ondoren, Italia eta Frantziari. Ditugun instituzioak ez dira neurria izan eta martxan jarritako neurri ekonomikoak berandu iritsi dira edo zoritxarrekoak izan dira. Horrek krisiaren hainbat ondorio eragozteko ekidin du, besteak beste: enpleguaren jaitsiera, diru-sarreraren fiskalen beharrezko eta ongizate-estatuko hainbat aspekturen galera.

Mundu mailan, 2008an azaleratutako atzeraldiak ulertarazi digu globalizazioa abantaila handia dela, baina argi geratu da baduela alde mikatza ere. Izan ere, **globalizazioak** berehala hedatzen ditu krisialdien efektuak eta ez dugu instituzio global eraginikorrik fenomeno honi aurre egiteko.

Nazioartean, berriz, positiboa izan da **Afrikako** hainbat herrialde txirotan bizi izan duten hazkuntza: enpleguan eta produkzioan haztea lortu dute.

2015

INGURUA Bilaran dugun aktibitate ekonomikoak azagatu, beharrezko diren aldaketak egiteko eta krisiaren aurretikoen enplegu eta ongizate maila eskuratzeko.

GAZTEAK Sistema ekonomiko eta sozialak gazteei aukerak emateko gai izan behar du.

INSTITUZIOAK Gobernantza globalak ondo funtzionatzeko beharrezko diren instituzioak sortzea eta aldaketa klimatikoaren lehentasuna izatea estatuentzat.

GIZARTEA eta POLITIKA



MIKEL IRIZAR | ANALISTA

2014a: on eta txar, denetarik

DEBAGOIENA

Industriak eman du zeresanik gehien 2014an. Fagorren krisia neurri batean bideratu da **Cata** enpresari esleituta, baina ertz asko daude oraindik airean: langabeak, diru ekarpenak, ereduaren gaineko zalantzak... Eta enpresa gehiago sartu dira krisian, Bergarako **Candy** azkena. Bistan da etxetresnen ekoizpenak ekarpen handia egin diola iraganeko eskualdeari, baina hor ez dago maila bereko etorkizunik. Alde onean jarri behar da Bergarako **Lazpiarren urteurrenaren** bistaratu duen ereduak: ekoizpenerako mailgua, kudeaketen partizipatiboa, gizartearekin konprometitua...

Politikan, gezurra badirudi ere, **zaborren kontua** izan da gatazka nagusia. Konponbide teknikoetara jo denean posible izan da adostasuna eta, denbora joan ahala, pizitutako suak apaldu egin dira. Baina berriro agerian geratu da oraindik ere ze gutxi behar den hemen ezinikusiak eta etsaitasun bortitzak sortzeko. Ez gara oso politak irten argazkian.

Horrekin batera, kezka ikusten dut urteak joan urteak etorri eskualdea ez dela behar beste egituratzen eta indartzen. **Mankomunitate** sendo bat eta epe luzeke plangintza beharrezkoak dira eskualdean aspaldidanik, baina une honetan inoiz baino gehiago. Industriaren indarra krisiak ahulduta eta mendetako isolamendua autopistak zulatuta, Debagoienak **etorkizuneko egitasmo** sendoa behar du, komunitate gisa iraungo badu.

EUSKAL HERRIA

Uste dut **Gure Esku** ekimena izan dela urteko gaia. Bai gizartearen



Gure Esku Dago katea Arrasaten. | GOENA

2014

2015

INDUSTRIA Debagoienak adierazteko behar du industriaren bilakaerari; eta kooperatiben kongresuak uzten duenari.

HAUTESKUNDEAK Euskal Herrian hauteskundeak datoz eta Nafarroan –agian– amestutako aldaketa. Ikustekoa Podemosen eragina; baita Gure Esku Dagoren bilakera.

KATALUNIA Munduan guretzat interesgarriena Kataluniaren ibilbidea, Espainian eta nazioartean.


ikuspegitik eta bai politikarenetik ere. Nire interpretazioaren arabera, euskal gizarteak politikan jarduteko bide berri bati ekin dio dinamika honen bitartez. Lelo nagusia –gure esku dago– sorreratik lotzen zaio **erabakitze eskubide** nazionalari, eta mugimendua norabide horretan abiatu da. Baina nago prozesuak baduela irakurketa sakonagoa ere; alegia, herriarrok gero eta gehiago nahi dugula erabakimena gure eskutan egotea, baita kontu gehiagotan ere. Esango nuke aro bat amaitzen ari dela, lau urte behin botoa eman eta hortik aurrera gure ongizate alderdietan delegatzen genueneko. Irudipena daukat gizarte amantzipatzen ari dela esparru askotan eta baita ere alderdiekiko menpekotasunetik. Hori sendotzen bada eta boto mugikorra ugaltzen, gizarteak **aginte maila** bat berreskuratuko du eta oreka sanoagoa lortu ahal izango da gizartearen eta alderdien artean. **Katalunia** da honetan saihestezinako erreferentzia.

Aldi berean, **Espainia** gainbehera etorri izanak –ustelkeriak eta autoritarismoak jota– areagotu egin du gure distantzia haiekiko, bai ideologikoa eta baita emozionala ere. Honenbestez, EAEn lehen aldiz hasi da bistaratzen **independenziaren** aldeko gehiago zoziala osatzeko aukera erreala.

MUNDUA

Zalaparta nagusitu da 2014an ere: ebola, Siria, Palestina, Europako krisi ekonomikoa, Estatu Islamiarra... Gehi albiste izatera ere iritsi du gure beste hainbat gatazka. Aspaldiko kontua da albiste onak ez direla albiste, nekez dutela zulatzen nazioarteko albistegien sabaia. Baina zarata horren aspian sumatzen dut bilakaera interesgarriak ari direla gertatzen **kooperazioaren esparruan**, etorkizunarekiko gizarte erantzukizunean, ingurumenaren aldeko borrokan, hazkunde etengabearen paradigma ordezkatzeko... Eta horien emaitzak bistaratuko direla noizbait.

KIROLA



IMANOL ZEZIAGA | SASKIBALOI JOKALARIA

Lanak emaitza oparoak utzi ditu

DEBAGOIENA

Saskibaloio jokalaria naizen aldetik, saskibaloia da ongien ezagutzen duen kirola, eta, beraz, kirol alorrean 2014ak emandako ikuspuntu horretatik aztertu ditut. Esango nuke oparoa izan dela urtea Arrasateko **Ointxe** klubarentako. Izan ere, aurreko urteetan egindako lanak eman ditu emaitzak. Harrobian lan handia egin da, eta, horren ondorioz, **senior** taldeak igoera lortu du. Sufrituta lortu da, gainera, igoera, eta, halakoetan, garai-penak zapora gozoagoa du. Hori esango nuke izan dela Debagoiengan izan dugun aipagarriena kirolari dagokionez.



2014 MU-ko jokalaria, erasoan. | IMANOL ZEZIAGA

EUSKAL HERRIA

Kasu honetan, saskibaloiak baino gehiago, esango nuke futbolak eman duela urteko albisteak. **Eibarko** futbol taldearen igoeraz ari naiz! Hori ere sekulako lana egin dute, borrokatu egin dute eta sekulako iraunkortasuna erakutsi dute. Aurrekontu txikiarekin eta orain lehiazten ari diren taldeak baino txikiagoak izanik, sekulakoa da lortu dutena. Esango nuke eredu direla; herri txikietan ere halakoak lor daitezke.

Zaleendako ere sekulakoa izan da, zirrarragarria. Esango nuke, gainera, aurten eutsi egingo diola lehenengo mailari. Ondo lan egiten du.

MUNDUA

Bi gauza aipatuko nitzuke: lehenengoa, Txapeldunen Ligako finaleko luzapenean **Sergio Ramosek** sartutako gola. Futbol jarraitzaile moduan, sekulakoa iruditu zitzaidan; eta ez naiz **Real Madril** zalea, ezta gutxiago ere, baina gol hark erabat hunkitu ninduen. Bestetik, aipatuko

2015

EBA-RI EUTSI! Esango nuke **Ointxe** saskibaloio taldeak lortuko duela 2015ean ere EBA mailari eustea eta Iturrieko instalazioak klubak merezi duen moduan ipinikiko dituztela.

BORROKA Aurreikusten dut aurten egin duten moduan Euskal Herriko taldeek borroka egingo dutela mailarik onena emateko.

GARBIA Biolentziaren eta drogaren mamuak alde batera, kirola garbia izango da 2015ean.

KULTURA



IKER BARANDIARAN | KAZETARIA

'Jul'-en heriotzak lausotu du kulturgintza

DEBAGOIENA

2014a bukatzean, hain maitatua izateaz gain, gure ibarrean eta hemendik kanpo ere erreferente izan den RIP taldeko **Jul Bolinaga** hil zaigu. Horrek lausotu du kulturgintza. Baina badira albiste onak ere: Eskoriatzan erabilera askotariko antzokia zabaltzean dago eta Bergaran Errege Seminarioari kultur ekimenetarako erabilera eman gura diote. **Mundumira** ere bueltan etorri da eta badirudi ekimena arrakastatsua izan dela. Txikienei begira, ezin ahaztu **Txatxilipurdik** eta Udalak antolatutako **Iriren Lagunak**.



2014 Screammers and Sinners. | JOSU TXAKILURRETA

Sorkuntza ere puri-puritan dago gurean: horra hor Aretxabaletan egin izan dituzten tamainan edo handiago Oñatin, euskararen inguruko ikuskizunak.

Oso berezia izan da aspaldiko bikote arrasatearra, **Ifigo Arregi** eta **Juan Luis Goikolea**, berriro elkarrekin aritu izana, zer eta Sarrionandiak eta **Gosok** erditutako **Gosariak** ekoizpen ederrean. Musika abiatuta, txundituta utzi ninduten **Screammers and Sinners** arrasatear-aretxabaletar taldekoek zuzenekoan!

EUSKAL HERRIA

Debagoienetik kanpo entzun ditudan kontzertuen artean harribitxiak hauek: **Mike Watt** Trintxerpeko Mogambon, **VAZ** Getariako gaztearen eta **Red Kross** Intxurrondon. Ezin ahaztu **Willis Drummond** taldekoek **Neil Young**en kantutegiari egindako luxuzko errebasoa.

The Who taldearen itzulera ere albiste ona da, batez ere gerora etorri izan diren askoren eta askoren aitonen direlako, gauza askoren asmatzaile, eta, gainera, oraindik ere sasoiaren daude deabru horiek!

2015

MUSIKA BULEGOA 2015era begira bai orain. Eusko Jaurlaritzak Musika Bulegoa jarriko du martxan.

EKKI Euskal sortzaileek euren eskubideak hemendik babesteko EKKI eratu dute.

AZKENA ROCK Badirudi, aspaldiko partez, Azkena Rock jaialdiak lehenengo esentzia berreskuratuko duela; eta gurean ere ekimen interesgarriak izango dira, seguru.

ARAMAIOKO UDALA ARABA

“Aramaiotar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudeteno, Aramaioko udalbatzaren partez urte berri on!”

Bulego ordutegia:
Astelengatik ostiralera: 09:00 - 14:00
Asteazkenetan: 16:30 - 18:30

Bixente Goikoetxea plaza 1
ARAMAIO • Tel.: 943 44 50 16
www.aramaio.org • udala@aramaio.org

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Arrasate

urte berri on!

Tel.: 945 45 01 00
Faxa: 945 45 03 15

ELKAR HARTUZ, AURRERA GOAZ
Elkar hartzetik adiskidetasuna, konpromisoa eta lankidetzaren dira. Horrela ulertzen dugu banka kooperatiboa.



IMB ESTUDIOA

BARNE DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ALTZARIAK

*zorionak eta
urte berri on!*

ibargarai 4. 2050 bergara - Tel./Faxa: 943 763737 - imb_estudioa@hotmail.com

